


PIARRES LARZABAL

# SENPERE-N GERTATUA

LAPURDIKO ETA GIPUZKOAKO EUSKERAZ

(Gipuzkoakoa Aita Luis Villasante-k moldatua)



AUSPOA LIBURUTEGIA

SB-909  
9973

# SENPERE-N GERTATUA

Lapurdiko eta Gipuzkoako euskeraz  
(Gipuzkoako Aita Luis Villasante-k moldatua)

AUSPOA LIBURUTEGIA

34

---

### **COLECCION AUSPOA**

**Administración: Plaza de Santa María, 2-Tolosa**  
**Dirección literaria: Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J.**  
**Colegio S. Ignacio - Ategorrieta - San Sebastián**  
**(Guipúzcoa - España)**

Ordaindu bearra:

Urte betekoa: 200 pezeta      Atzerrian: 275 pezeta

Ongilleak: 350      "      Ale bakarra: 25      "

PIARRES LARZABAL

# SENPERE-N GERTATUA

Lapurdiko eta Gipuzkoako euskeraz

(Gipuzkoakoa Aita Luis Villasante-k moldatua)

AUSPOA LIBURUTEGIA

1964

*Depósito Legal S. S. 440/64*

*Núm. Registro S. S. 4825/63*

## ARKIBIDEA

Jokalariak .....	8- 9
Lehen gertaldia .....	10- 11
Bigarren gertaldia .....	56- 57
Hirugarren gertaldia .....	96- 97
Laugarren gertaldia .....	112-113

## JOKALARIAK

- 1 Ganix ..... 50 urthe, idor, eskrupulos moldeak.
- 2 Anton ..... 22 urthe, edozoin.
- 3 Luix ..... 50 urthe, edozoin.
- 4 Erretora ..... 50 urthe, fermu.
- 5 Poliza ..... 50 urthe, borthitz.
- 6 Jendarma xefa .. 50 urthe, ofizioko itxura.
- 7 Tartalet ..... 35 urthe, txar, bitzi.
- 8 Katxin ..... 40 urthe, edozoin.
- 9 Jana Mari ..... 50 urthe, zintzo, zaintsu.
- 10 Margo ..... 20 urthe, beldurti.

Mintzatzen ez direnak: *Ostalerts*a, *hiru kantari*, *Manech beretterra*.

## JOKALARIAK

- Ganix* ..... 50 urte, zimel, eskrupuloso-itxurakoa.
- Anton* ..... 22 urte, nornai.
- Luis* ..... 50 urte, nornai.
- Erretorea* ..... 50 urte, nornai.
- Polizia* ..... 50 urte, gogorra.
- Guardia* ..... 50 urte, ofizioko itxura.
- Tartalet* ..... 35 urte, kaskarra, parregarri.
- Katxin* ..... 40 urte, nornai.
- Joana Maria* ..... 50 urte, zintzo-urduria.
- Margo* ..... 20 urte, bildurti.
- Itzegiten ez dutenak:* Ostatuko andrea, iru kantari, Manex eliz-mutilla.



## Lehen gertaldia

*Joka-lekua:* Erretor etxeko sala, sar athe bat.

(Oihala idekitzean, Jaun Erretora, gizon bat urrikiz hautsia, kofesatzen ari da. Biak xutitzen dira.)

Ganix.—Zertako hil dudan Mixel, zertako hil-eta, erre dudan lastoz eta petrolez. ez dakit, nihaurrek ez dakit... Aratsean, ardi bat eskas nuen bordan... Mixelen arthaldean zitakela, jo dut haren bordarat... Mixel ez zen han... Haren arditeian sartu naiz, ardien ikusteko... Barnean nintzelarik Mixel agertu da nunbaitik. Ez zuela balio ene burua erakus nezadan, gorde nitzaio... Bainen, ohartu da han bazela norbait eta makhilarekin eman daut burutik behera... Orduan erhotu naiz... Ez nintzan gehiago ene zainen jabe... Han baitzen aizkora bat, harekin joka garbitu dut gizona... Eta, ondotik, ene egitateaz ikharatua, behar nuela gorphutz hura suntsitu bethikotz, su eman diot, lastoz eta petrolez inguraturik.

## Lenengo gertaldia

**JOKA-LEKUA:** *Erretore-etxeko gela, ate batekin.*

*(Oiala idikitzean, Erretore jauna gizon bat konfesatzen ari da, damuz autsitako gizon bat. Biak zutitzen dira).*

*Ganix.*—Zergatik il dedan Mitxel? Zergatik, il ondoren, lastoz eta petroleoz erre dedan, ez dakit, neronek ere ez dakit. Bart arratsean, ardi bat falta nuen txabolan. Mitxelen artaldean egon zitekela-ta jo det aren txabolara. Mitxel ez zan an. Aren artegian sartu nintzan, ardiak ikusteko. Barruan nengoela, Mitxel agertu zan nunbaitetik. Nere burua erakustea etzitzaidan ongi iruditu, eta gorde egin nintzan. Baiñan oartu zan an bazala norbait, eta makillaz jo ninduan goitik beera. Orduan erotu nintzan. Ez nintzan geiago nere buruaren jabe. An ba-zan aizkora bat, eta arekin joka garbitu det gizona. Eta gero, nere egiñaz ikaratu, gorputz ura bear zala ezkutatu betiko, eta su eman diot, lastoz eta petroleoz inguraturik.

Erretora.—*Badia nehor familiakorik?*

Ganix.—*Ez... Nunbaitik jina zen... Nehork ez dio behin ere askazirik ezagutu... Bethi bakartasunean bizi izan da artzaingotik.*

Erret.—*Jainkoarekin zorretan izanen zira, ba eta ere haren arimarekin.*

Ganix.—*Kontzientziaz bortxatua niza, jujeri ene krimaren aithortzea?*

Erret.—*Gure Jainkoak holakorik ez du galdatzen. Erreparatu ba, behar duzu, Jainkoari eta gizoneri, bainan aithorra, kofesioan dugu bakarrik zor, Jainkoaren ordainari.*

Ganix.—*Bainan jujek galdatzen badautet ni nizan krimaren egilea, ukhatzen ahal duta? Ez dea hori gezurra deitzen?*

Erret.—*Ez du Jainkoak galdatzen denen aintzinean zure bekatua aithor dezazun... Aithor hori, beren ofizioaz, zure ganik athera nahi dutenek, beren lana egiten dute... Bainan, jujek beren dretxoa balinbadute zuri galdeen egiteko, zure dretxoa ere da, zure hobena denen aintzinean ez aithortzeko...*

Ganix.—*Bainan, ez dea katiximan, egia behar dela bethi erran tribunalean?*

*Erret.*—Ba al du etxekoren bat edo seniderik?

*Ganix.*—Ez. Nundikbait etorria zan. Iñork ez dio aiderik ezagutu. Beti bakartadean bizi izan da artzaintzatik.

*Erret.*—Jainkoarekin zorretan izango zera ba, eta bai aren animarekin ere.

*Ganix.*—Konzientziaz beartua al nago, juezari nere krimena aitortzera?

*Erret.*—Gure Jainkoak ez du orrenbeste eskatzen. Gaizki egiña ordaindu bai, Jainkoari eta gizonei, baiñan aitorra konfesioan bakarrik zor degu, Jainkoaren lekuan dagoanari.

*Ganix.*—Baiñan juezak galdetzen badidate ia ni naizan krimen orren egillea, ukatu al dezaket? Ez al da ori gezurra esatea?

*Erret.*—Jainkoak ez du eskatzen danen aurrean zure pekatua aitor dezazun. Aitor ori, beren ofizioz, gugandik atera nai dutenak, beren lana egiten dute. Baiña juezak beren eskubidea balin badaukate zuri galderak egiteko, zuk ere badezu eskubidea zure obena danen aurrean ez aitortzeko...

*Ganix.*—Baiña dotriñak ez dio ba egia esan bear dala beti tribunalean?

*Erret.*—Testiguak bai, egia zor diote gi-

Erret.—*Lekukoek ba egia zor diote gizonen tribunalari... Hobendunek aldiz Jainkoaren tribunalari bakarrik... Hobendunak, Jainkoaren tribunaletik entzun sententzia konpli beza, eta kito da Jainkoarekin eta bere kontzientziarekin.*

Ganix.—*Bainan, munduari egin eskandala, ez dea munduaren bixtan erreparatu behar?*

Erret.—*Egin ditakena da, bainan Jainkoak ez gaitu hortarat bortxatzen... Maiz ere, munduari egin eskandala, munduko tribunalek ez dute erreparatzen, bainan saltsatzen eta berduratzen.*

Ganix.—*Dakizun bezala, auzoko Anton preso altxatua dute hobendun gisa... Kontzientziaz, hura zikintzerat eta kondenatzerat uzten ahal duta?*

Erret.—*Zure burua garbi-azu, nehor akusatatu gabe... Antonek, bere malura, zuregatik badu, ez dezala izan zure ganik... Nahi baduzu Anton salbatu zure hutsa jujeri aithortuz, aizu zira, bainan ez zira hortaraino kontzientziaz bortxatua.*

Ganix.—*(Jalitzen bezala da, bainan berriez sartzeko) Ha, eta ene alaba, gure Mar-go, zer bilhakatuko da?... Dakizun bezala, manak igandean ditutzu.*

zonen tribunalari. Obendunak, aldiz, Jainkoaren tribunalari bakarrik. Obendunak, Jainkoaren tribunaleko sententzia kunplitu beza, eta kito, pakean gelditzen da Jainkoarekin eta bere konzientziarekin.

*Ganix.*—Baiñan munduari eman zaion eskandalua, ez al da munduaren bistan erreparatu bear?

*Erret.*—Egin ditekena da, baiña Jainkoak ez gaitu ortara beartzen. Munduari eman zaion eskandalua, munduko tribunaleak, askotan, erreparatu bearrean, naastu eta aundiagotu egin oi dute.

*Ganix.*—Berorrek dakian bezela, auzoko Anton preso artu dute, errudun dalakoan. Konzientziaz, utzi al nezake ura zikintzera eta kondenatzera?

*Erret.*—Zure burua garbitu zazu, iñor akusatu gabe. Antonek bere zoritxarra zuregatik badu, ez dezala izan zuregandik. Nai badezu Anton salbatu zure utsa juezai aitortuaz, libre zera, baiña konzientziaz ez zera ortaraiño beartua.

*Ganix.*—(*Irtetzen asten da, baiña berriz sartzeko*) A, eta Margo, nere alabaz, zer izango ote da? Berorrek dakian bezela, deiak igandean dira.

*Erret.*—Bai, orixe bera neukan gogoan.

Erret.—*Ba, hori bera gogoan egona naiz.*

Ganix.—*Ene haurraren malura egiteko dretxoa baduta, ixilik egonez?*

Erret.—*Uste duzia, mintzatuz, zure alaba hobeki zerbitzatuko duzula?*

Ganix.—*Ho kolera... Zertako kolerakorra naiz?... Ha, ondorio izigarriak...*

Erret.—*Kolera, bekatu kapitala, bertze hainitz bekatuen ithurburua.*

Ganix.—*Eta orai, kofesatu-eta, kito niza beraz?*

Erret.—*Ba, jada erran dautzut, erreparatu-eta.*

Ganix.—*Uste duzia gero kontzientzia bakean sendituko dutala?*

Erret.—*Ez, ez duzu egitate hortaz sekulan kontzientzia bakean sendituko.*

Ganix.—*(asaldatua) Zer nahi duzu erran? Jainkoak ez dautala barkatuko?...*

Erret.—*Ez... Jainkoak barkatuko dautzu. Bainan gure egitatek segitzen gaituzte... Zure bekatuaren zauriak bethi min eginen dautzu... Gizonaren kontzientzia da gordetei bat bezala, bere egitateen orhoitzapenez bethea... Orhoitzapen horiek, on edo gaixto, gordetei hortarik jalitzen dira noizean beinka, gu kontsolatzeko edo minberatze-*

*Ganix.*—Nere umea zorigaiztoko egiteko eskubidea al det, ixillik egonez?

*Erret.*—Eta uste al dezu, itzegiñaz, zure alabaren alde obeki jokutzen dezula?

*Ganix.*—A, aserrea... Zergatik ote naiz aserrekor? A, ondore izugarriak...

*Erret.*—Aserrea, pekatu kapitala, beste pekatu askoren iturburua.

*Ganix.*—Eta orain, konfesatu eta, kito naiz beraz?

*Erret.*—Bai, len ere esan dizut, pekatua ordaindu ondoren.

*Ganix.*—Uste al du berorrek gero konzientzia pakean izango dedala?

*Erret.*—Ez, egitade ortaz eztezu sekulan konzientzian pakerik izango.

*Ganix.*—(Asaldatur) Zer esan nai du? Jainkoak ez didala barkatuko?

*Erret.*—Ez. Jainkoak barkatuko dizu. Baiña gure egitadeak beti segitzen gaituzte. Zure pekatuaren zauriak beti emango dizu min. Gizonaren konzientzia gordeleku bat bezela da, bere egite guztien oroipenez betea. Oroipen oiek, on edo txarrak, gordeleku ortatik ateratzen dira noizean beinka, gu konsolatzeko edo minberatzeko. Esnatu-



ko... Atzarririk, berdin lotarik, kontzientziaren danga ilhun zorrotzak, bihotza penatuko eta zilhatuko dautzu... Eta urthek ez dute kontzientziaren danga hori eztituko, bainan hobeki borthitztuko eta pisutuko.

Ganix.—Hau, zorte malurusa!...

Erret.—Ba, presundegi eta amandak zer-bait badira, bainan heien gaztigua baino segurago eta latzago duzu, kontzientziaren danga ezin ixildua.

Ganix.—Jauna, othoitz egizu enetzat. (Bihotza joa, jalitzen da)

Erret.—Ba, othoitz egin dezagun elgarrentzat. (Bakharrik, gogoetatua, harat eta hunarat dabil... Mahain gaineko gurutzefika tinkatzen du eskuetan. Gero, bizarra egiteko pusken aphailatzen lotzen da. Bainan, athea jotzen dute, idekiz)

Erret.—To, gaizoa, hi hintzana, eskoletako adixkide zaharra! Nun habila hemen gaindi?

Poliza.—Bordaletik heldu nuk, xuxen xuxena... Pentsatzen ahal duk zertako?

Erret.—Ez amesten ere.

Pol.—Ez dakika poliza buru nizela Bordalen?

Erret.—To, banakian polizgoan hintzela,

rik, edo berdin lotan zaudela, konzientziaren danga illun zorrotzak biotza penatuko edo zulatuko dizu. Eta urteak ez dute konzientziaren danga ori beratuko. Bearbada azkarrago eta pisuago egin bai.

*Ganix.*—Ai, nere errukarria!...

*Erret.*—Bai, kartzelak eta multak badira zerbait, baiña oiek baiño kastigu zorrotzagoa ta latzagoa dezu konzientziaren danga ezin ixilduzko ori.

*Ganix.*—Jauna, otoitz egin beza nigatik. (*Biotz eroria, irtetzen da*)

*Erret.*—Bai, otoitz egin dezagun elkarrenгатik. (*Bakarrik, gogoetatsu, ara ta onera dabil. Mai gaiñeko gurutzea artzen du eskuetan. Gero bizarra egiteko tresnak presatzen asten da. Baiña atea jotzen dute; idikiz*):

*Erret.*—O, i intzan, eskolako adiskide zaa-rra! Zer abil emen?

*Polizia.*—Burdeostik etorri nauk, zuzen-zuzenean. Asmatuko dek zergatik.

*Erret.*—Ezta urrik ere.

*Polizia.*—Ez al dakik polizien buru naitzela Burdeoson?

*Erret.*—To, banekian polizia intzala, bai-

*bainan ez nun eta zer gradutako. Zer heldu hiz beraz?... Krima horrentzat?*

*Pol.—Ba, hala heldu nuk... Eskuara zakiatelakotz, hemen gaindiko krimen argitzale ni nuk.*

*Erret.—Ez ahal duk usu, hemen gaindi, holako lanarik.*

*Pol.—To, ez duk beharbada sinhetsiko, bainan egia hauxe duk: Eskual-Herrian, bertze edozoin eskualdetan bezenbat gizon hiltze gertatzen dela.*

*Erret.—Ba zera!*

*Pol.—Egia hola duk. Erranen duzue, zuek, aphezek: Eskualdun fededun... Bainan, berdin berdina, erran zuek: Eskualdun herradun... Odol borthitzekoa duk eskualduna, kasko gogorra eta thematsua. Eta, herran sartuz geroz, ez die deubru batek hartzen Eskualduna, bainan hiru deubruk.*

*Erret.—To, ez nian holakorik uste.*

*Pol.—Eskualdunak, bertute jabe gituk, bainan bertute heien infrentzuak, maiz hor ditiagu: itzal handiak... Errak, hor badi tek jendarmek muthil bat arrastatua. Kasik segurtamena badiuk hori dela gizon hiltzalea... Artzainek baino hobeki nehork ez baitik ezagutzen arthaldea, zer muthil duk to, Anton hori?*

ña ez nun ta ez zer gradutako. Zergatik etorri aiz? Krimen orrengatik, bearbada?

*Polizia.*—Bai, ortara etorri nauk. Euske-raz bazekiat eta, alderdi auetako krimen argitzale ni nauk.

*Erret.*—Alderdi auetan ez dek maiz izango olako lanik.

*Polizia.*—To, ez dek bearbada siñistuko, baiña egia auxe dek: Euskalerrian beste edozein eskualdetan aiña gizon-iltze gertatzen dala.

*Erret.*—Bai zera!

*Polizia.*—Egia ala dek. Zuek, apaizak, esango dezute: Euskaldun fededun. Baiña berdin-berdin esan dezakezute: Euskaldun gorrotodun. Odol-beroa dek euskalduna, kasko-gogorra eta tematia. Eta bein gorrotoan sartu ezkeru, ez deabru batek, baiña iru deabruk artzen dute euskalduna.

*Erret.*—To, ez nian olakorik uste.

*Polizia.*—Euskaldunak birtute askoren ja-be gaituk, baiñan birtute oien ordaiñak ere maiz or dizkiagu: akats eta itzal aundiak. Esaidak, guardiak or sartu ditek preso mutil bat. Kasik segurua dek ori dala gizon-iltzalea. Artzaiak baiño obeki iñork ez dik eza gutzen artaldea eta, zer mutil dek ba Anton ori?

Erret.—(Zintzoki) *So egizak, hi... Nahia go diat hire galdea ixilik utzi... Ni hemen, denen aita nuk, eta, ez duk gomeni, aita bat ari dadien bere haurren salaturietan.*

Pol.—*Egiazko eskualdun apheza haiz ba hi ere... Prediku lekhutik berdin zer-nahi burutik behera erranen diozue zuen arthaldeari, bainan sahetsetik norbait jazar ikhusten baduzue arthalde berari, ordu be-rean mutu bilhakutzen zarete zuen arthaldearen itzalez, eta hau zuen gerizan hartzen duzue.*

Erret.—*Ez ahal zauk hori gaizki!... Artzainaren eginbidea ahal duk, batetik arthaldea akulatzea, bertzetik haren zaintzea otsotarik.*

Pol.—*Zer nuk, ni, otsotzat hartzen?*

Erret.—*Ba, nahi dukan bezala ene errana hartuko duk, bainan hire ofizioko gizonak ez zaizkiat laket, eta nahiago ditiat etxean baino auzoan, eta ahal bada auzo urrun.*

Pol.—(Bizi bizia) *Ez ahal zauk gaizki gaxtaginen arrapatzea eta punitzea?*

Erret.—*Ba ba... Bainan eni iduritzen, gaxtaginak atzeman estakuruan, aisegi ditzuela jendeak funditzen, sobera saltsa zikinak muntatzen, batzuetan hobengabeak kondenatzen.*

*Erret.*—(Zintzoki) Begira zak, i... Naiago diat ire galdera ixilik utzi. Ni emen dannen aita nauk, eta ez dek komeni aita bat bere aurrak salatzen ibilli dedin.

*Polizia.*—Bai, egiazko euskaldun apaiza aiz i ere. Kulpitutik goitik beera zernai esango diozute zuen artaldeari, baiña saietetik norbait artaldeari eraso naian ikusten badezute, orduan mutu biurtzen zerate, eta au zuen babespean artzen dezute.

*Erret.*—Ori ez zegok batere gaizki! Artzaiaren eginbearra dek alde batetik artaldea akulatu, eta bestetik ura otsoetatik gordetzea.

*Polizia.*—Zer? Ni otsotzat artzen nauk?

*Erret.*—Ba, ar zak nere esana nai dekan bezela, baiña ire ofizioko gizonak ez dizkiat gogoko, eta naiago dizkiat etxean baiño auzoan, eta al bada urrutian.

*Polizia.*—(Bizi bizi) Gaizkilleak arrapatzea eta zigortzea ez zegok gaizki.

*Erret.*—Bai, bai. Baiña neri iruditzen zait gaizkilleen aitzakiakin, sarritan jendea ondatzen dezutela, saltsa zikin geiegi jarri, eta batzuetan errugabeak kondenatu ere bai.

*Polizia.*—Zer? Esamesak egitzat artzen dituk ik ere? Erruki aut periodikuak dotri-

Pol.—Zer dituk hik ere, erran-merran batzu egitzat hartzen?... Pleini hut kazetak badauzkak katiximatzat... Bixtan duk, gure ofizioan ere izan zuzkek, bertzetan bezala, gizon ustelak... Bixtan duk ere, batzuetan aztaparrak pixka bat pisuegi hedatzen di tiagula gure menerat bildu ihizieri... Bainan, asko mandoren hezteko bezala duk, asko jenden hezteko ere. Zaharoaz bakarrik dituzkek bentzun.

Erret.—Zaharoa gauza itsua duk... Gaxtaginen aithorak ditutzuela hari esker ardiesten, zonbaitetan ba. Bainan, berdin hobengabeak zafratzen, eta, beldurtieri hala direnak eta ez direnak aithorarazten.

Pol.—Zer nahi duk... Ez dik guriegi behar gure ofizioko. Atrebentzia behar dik izan desmasia pixka bat egiteko, hartarik zerbait on jalitzeko esperantzan.

Erret.—Zuen ofizioko ez dela guriegi behar, diok, eta nik zioiat: Ez eta ere kontzientziez kilikegi... Hik eta nik, katiximan ikasi ginian gaxtakeria ez dela aizu, egina bada ere handik zerbait on jaliko delakoan... Itsurat punitzea ez duk aizu, nonbrean hobendunak barne izanen direlakoan. Ez ibil gaztigurik, gaxtaginak atzeman artio etu hek punitzeko baizik.

Pol.—Ez gituk airerat nor-nahi zafraka

ña bezela siñisten badituk. Bistan dek, gure ofizioan ere izan ditezke, bestetan bezela, gizon ustelak. Batzuetan atzaparrak pixka bat astunegi jartzen dizkiegu gure eskuetan artutako piztiei. Baiña, zer nai dek? Zenbait mando ezitzeko egiten dan bezela egin bear dek zenbait jende ezitzeko ere. Makillarekin bakarrik ezitzen dituk.

*Erret.*—Makilla, gauza itsua dek. Batzuetan gaizkilleen aitorrak ari eskerrak eskuratzen dituzute. Baiña errugabeak ere berdin astintzen dituzute, eta ala, bildurtiei diranak eta ez diranak aitorrarazten dizkiezute.

*Polizia.*—Zer nai dek? Gure ofiziokoak ez dik samurregia izan bear. Atrebentzia izan bear dik geiegikeri pixka bat egiteko, gero ortik zerbait on ateratzeko esperantzan.

*Erret.*—Zuen ofiziokoa ez dala samurregia bear diok, eta nik zioat: konzientziaz sentikorregia ere ez. Ik eta nik dotriña ikasi genian gaiztakeria ez dala zillegi, andik zerbait on ateratzekotan egiten bada ere. Itsu-itsuan zigortzea ez dek zillegi, obendunak barruan egongo diralakoan. Ez eman kastigurik gaizkilleak arrapatu arte, ta oiek zigortzeko baizik.

*Polizia.*—Ez diagu nornai ta nolana ze-



lotzen... Frogak eskuratu ondoan, aintzinat ukhatzen ari direnak ditiagu hezten... Dena den, ez duka beraz hire iduripenik, nork egin duen hemengo krima hori?

Erret.—Ez den gutienik ere.

Pol.—Bon, ago beraz mutu... Atzemanen ditiat mintzatuko direnak.

Erret.—Agian zuzenetik mintzatuko zauz-kik. (Athea joiten dute) Aintzina...

Tartalet.—(Sartu ordu, ezin athertuzki mintzo) Jaun Erretora, azkenean gertatu da gertatu behar zena... Segur baino segurago naiz, hek, bai hek egina dutela krima hori.

Erret.—(Fermuki) Tartalet, othoi zaude ixilik.

Pol.—Zer ixilik?... Mintza zaite garbiki, jauna... Zer dakizu?

Tart.—(Dena sinu, Polizari mintzo) Ba, jauna... Hori buhamen lana da dena... Joan den aldian ikusi ditut nihaurrek hor buhameak pasatzen. Eta gero, gure auzoan oiloak eskastu ziren... Eta, bat, oilo koloka... Ba, horiek jaten dituzte oro... Eta, ez duzu gero luma bat ere atzemanen... Gordezen dituzte-eta lurrean... Ba, lur-ziloan sartuz... horiek guziak behar liezke kasatu hemendik... kasatu, entzuten duzu... kasatu.

tzen. Probak eskuratu ondoan, oraindik ukatzen ari diranak berotzen dizkiagu. Dana dala, emengo krimen ori zeñek egin duen ez al dek ik susmorik?

*Erret.*—Ez, arrastorik ere.

*Polizia.*—Ongi da. Ago beraz mutu. Arrapatuko dizkiat mintzatuko diranak.

*Erret.*—Zuzenetik mintzatuko al zaizkik! (*Atea jotzen dute*) Aurrera.

*Tartal.*—(*Sartu orduko asten da izketan*) Jaun Erretorea, azkenean gertatu da gertatu bear zana. Seguru baiño seguruago naiz oiek, bai oiek, egin dutela krimen ori.

*Erret.*—(*Aserre*) Tartalet, otoi, zaude ixilik.

*Polizia.*—Zer ixilik? Mintza zaitez garbiki, jauna. Zer dakizu?

*Tartal.*—(*Dana siñu, poliziarekin izketan*) Bai, jauna. Ori ijitoen lana da dana. Lengo batean ikusi ditut neronek or ijitoak pasatzen. Eta gero, gure auzoan oilloak faltatu ziran. Eta bat, oillo loka. Bai, oiek jaten dituzte danak. Eta ez degu gero luma bat ere arkitzen. Lur-barruan ezkututzen dituzte. Bai, zuloan sartuz. Oiek danak bear lirake emendik bota, bota, aditzen dezu? Bota!

Pol.—*Bainan, nork hil du gizon hori?*

Erret.—*Oren baten buruan, orai bezenbat jakinen duzu.*

Tart.—*(Tira-hala mintzo) Nork daki nundik heldu den arraza hori... Beren asto eta pottokoak nundik biltzen othe dituzte... Eta horiekin kasu eman behar da gero lapintieri ere... Guri ere ereman dauzkute bi lapin... Arra eta emia... Oraino bat utzi balute... ez... biak ereman dauzkute... Emia utzi balute bederen... Haren humiak or izanen ginituen... Joan den aldian egin zituen zazpi... (Bethi aintzina mintzo dela)*

Pol.—*Zer da?... Teilatutik arras harrotua?*

Erret.—*Juja zuhurrek.*

Tart.—*Horien atso horiek ibiltzen baitira beren zai handiekin, hola beztitzen dira, gauza ebatsien hobeki gordatzeko. Nork daki zer ez dituzten gordetzen zai horien azpian... Eta, zorte tzarrak ere botatzen dituzte... Lanjerosenak dira atso begi gorriak... Azken aldi batez, holako batek gure arthaldeari so-egin-eta, in nomine santian hiru ardi hil zauzkigun... Ba, hiruak ernari ziren... Ez zuten ez trefla berogitik jana, erran izan duten bezala... Haren begi kolpe gaxtoa zuten ukhana.*

Erret.—*Errazu, Tartalet.*

*Polizia.*—Baiña... zeñek il du gizon ori?

*Erret.*—Emendik ordubetera, orain bezelaxe jakingo dezu.

*Tartal.*—(Atertu gabe mintzo) Zeñek ote daki nundik datorren arraza ori... Beren as-to eta moxalak nundik biltzen ote dituzten... Eta ez moxalak bakarrik, konejuak ere zaitu bear dira oiekin. Guri ere eraman dizkigute bi koneju. Arra eta emea. Oraindik bat utzi balute... ez ba... biak eraman dizkigute. Emea beintzat utzi balute... aren umeak or izango genituen. Azkeneko aldian zazpi egin zituen. (*Beti aurre-ra mintzo dala*)

*Polizia.*—Zer da? Teillatutik zulatua?

*Erret.*—Zerorrek juzga.

*Tartal.*—Oien atsoak ibiltzen dira beren gona aundiekin; ala janzten dira ostutako gauzak obeki gordetzeagatik. Nork daki zer ez duten gordetzen gona oien azpian... Eta madarikazio txarrak ere botatzen dituzte. Denetan gaiztoenak dira atso begi gorriak. Lengo batean, olako batek gure artaldeari begiratu zion, eta beingoan, in nomine santan, tximista baiño aguruago, iru ardi il zizkigun. Bai, ta irurak ernari ziran. Ez zuten, ez, pagotxa beroa jan, esan duten bezela. Aren begi-golpe gaiztoak il zituan.

Tart.—(Bethi bereari) *Eta, horiek baino gaxtoagoak, gure artian bizi diren batzu dira... Horien odol berekoak. Hasteko: Etcherry eta Salaberry deitzen diren guziak, horien arrazatik dira... Bahakit nik hori... Eta horiek denek elgar aditzen dute, oilo eta lapinen ebasteko... Eta gero, phartzuekoan jateko.*

Erret.—*Errazu Tartalet.*

Tart.—*Bantzut, jauna.*

Erret.—*Ohartzen naiz zer-nahi berri baliosen jakintsun zarela... Othoi zoazi berehala denen salatzerat jendarma xefari... Zerbitzu gaitza eginen diozu.*

Tart.—*Ba, banoha... Banoha berehala... Jakinen ditu oro... Eta ez ditut oraino oro aiphatuak. (Jalitzen da)*

Pol.—*Zer euri elementa, to, gizon hori.*

Erret.—*Ba, horrek hire baratzea arrosatuko dik nahi dukan bezenbat, bainan lili guti han pusaraziko.*

Pol.—(Irriz) *Hobe diat beraz aldaratzea hemendik. Lekuko bat arras idorra, bertzea ezin athertua, biek ere ez ditek ene baratzea biziki onduko. Bainan jinen nuk oraino, hi konbertitzerat ez bada, bederen edari on huntarik jastatzerat.*

*Erret.*—Aizu, Tartalet.

*Tartal.*—(*Beti bereari*) Eta oiek baiño gaiztoagoak, gure artean bizi diran batzuk dira. Oien odol berekoak. Adibidez: *Etxeberria* eta *Salaberri* deitzen diran guztiak, oien arrazakoak dira. Badakit nik ori. Eta oiek danak elkarrekin konpontzen dira, oillo eta konejuak ostutzeko. Eta gero danen artean jateko.

*Erret.*—Aizu, Tartalet.

*Tartal.*—Esan beza, jauna.

*Erret.*—Ikusten det balio aundiko berrien jabe zerala. Faborez, zoaz bereala oiek danak guardia zibillen sarjentoari salatzerara. Mesede izugarria egingo diozu.

*Tartalet.*—Bai, banoa. Banoa azkar. Danak esango dizkiot. Eta oraindik ez ditut danak aipatu. (*Ateratzen da*)

*Polizia.*—Ori elementua!

*Erret.*—Bai, orrek ire baratza bustiko dik nai ainbat, baiña an lore gutxi sorraraziko.

*Polizia.*—(*Irriparrez*) Obe diat beraz emendik joan. Testigu bat guttiz legorra, bestea ezin atertua, biak ere ez ditek nere baratza asko onduko. Baiña etorriko nauk oraindik, i konbertitzera ezpada, edari on onetatik probatzera beintzat.

Erret.—So egizak... Plazer bat egin behar dautak... Ene etxeko sar-jalitzeak bethi eta bereziki egun hautan zainduak baitituk inguruko begiez —eta ez baitiat nahi krima horren saltsan barne— othoi, hemen, afera hunek dirauno, guti agert-adi... Hau bururatu-eta, orduan ba, nahi dukan bezenbat gurutzatuko gaituk.

Pol.—To, ez hut gehiago ezagutzen ere... Hi, eskoletan ginelarik hain irriskorra, hain axolarik gabe baihintzen, hor hiz Salomon zaharra bezin zuhur eta zintzo bilhakatua.

Erret.—Trufa-adi nitaz, nahi baduk, baina ez gituk batere biak kasu berean... Hik ez duk hemen phitz galtzeko, ez baituk hemen phitz bildurik. Nik, jendeen konfientzia eta errespetua, bilduak ditiat eta ez ditiat nolana hizka saltzekoak, hanitz lan eta urhatsen ondorioak baitituk... Hi, zonbait egunentzat hiz bakarrik hemen... Hire ziliportak hirekin joanen dituk... Eniak aldiz enekin geldi liuzkek, hemen egoitekoa bainuk.

Pol.—Bon, bon, ontsa duk... Goazen beraz bakoxta guretik... Hi ixiletik eta ni burrunbatik.

Erret.—Ba,... ahatik, ikasak, hik, ixiletik

*Erret.*—Begira: Mesede bat egin bear didak. Nere etxeko sartu-irtenak beti, baiña batez ere egun auetan zaituak dituk inguruko begiez; nik ez diat nai krimen orren saltsa-barruan egon; orregatik ba, istillu onek dirauen artean, faborez ez adi emen agertu. Au bukatutakoan, orduan bai, nai dekan beste aldiz egongo gaituk alkarrekin.

*Polizia.*—To, ez aut ezagutzen ere. I, eskolan giñanean, ain ausarta eta ajolagabea intzan, eta orain or aiz Salomon zarra bezin zuur eta zintzo biurtua.

*Erret.*—Burla adi nitaz, nai badek, baiña ez gaituk batere biak kasu berdiñean. Ik ez dek emen ezer galtzeko, ez dekalako emen ezer bildurik. Nik jendearen konfiantza eta errespetuak bilduak dizkiat, eta ez dizkiat nolana saltzeko, lan eta pauso askoren ondoreak dituk-eta. I egun batzuetarako aiz bakarrik emen. Ire txipristiñak irekin joango dituk. Nereak, berriz, nerekin geldituko liakete emen egotekoa naiz ta.

*Polizia.*—Ederki. Goazen beraz bakoitza bere bidetik. I ixiletik eta ni zalapartatik.

*Erret.*—Bai, baiña ikasi zak ik, ixiletik maiz lan baliotsuagoa egiten dala zalapartaz baiño.

*Polizia.*—Ongi da, Salomon zaarra. Eta



*maiz lan baliosagoa egiten dela burrunbatik baino.*

*Pol.—Ontsa duk, Salomon zaharra hi... Eta bertz'aldi bat artio. Eta, atxik daitak edari hortarik xorta bat, bertz'aldiko ere... Hauta baituk hori.*

*Erret.—Hitz ematen diat, gormant tzarra, hi ere... (Berexten dira — bakarrik) Hola hobe duk, erretor... Ez adila sobera eskuz esku ager munduko buruzagiekin... Orhoit nola den erran zahar: Jainkoa eta Zesar — biak parrian par — errespeta eta maita elgar — ez elgarri jazar — ez eta're elgarrekin sobera barna sar... Hola gobernatur ba Jainkoaren eta ba Zesar-en alderdia hobeki jaliko baitira munduan. (Berritz ere, bizar egiteari aphailatzen da... athea jotzen dute) Nor da hor, berritz ere?... Aintzina...*

*Ganix.—Agur, jaun Erretora.*

*Erret.—Agur, Ganix.*

*Ganix.—Jaun Erretora, hemen naiz berritz ere... Arrazoin zinuen. Kontzientziaren danga baino gaztigu izigarriagorik ez da. Kofesioan penitentziatzat erran dautazu, lau meza urthean emanazteko hil dutanarentzat, eta gainerat harentzat hiru "agur maria", egun bakotx egiteko. Bainan kalte ekharri diotet ere ene alabari, hor baitago nigarrez bere ezkontzeko laguna preso al-*

urren arte. Eta gorde zaidak edari ortatik tanto bat, beste egun baterako ere. Apartekoa dek.

*Erret.*—Itz ematen diat, litxarrerori. (*Bereizten dira; bakarrik*).

Ola obe dek, erretore. Ez adilla geiegi eskuz esku agertu munduko buruzagiekin. Oroitu adi zer dion esaera zaarrak: “Jainkoa eta Zesar”, biak alkarren parean, errespetatu eta maitatu alkar, ez bata bestearekin burrukan ibilli, baiñan ez biak geiegi naastu ere. Ola gobernatuz, bai Jainkoaren eta bai Zesar-en alderdia ere obeki aterako dira munduan. (*Berriz ere bizarra egiteko prestamenak egiten asten da. Atea jotzen dute*) Zein da, berriz ere? Aurrera.

*Ganix.*—Egun on, erretore jauna.

*Erret.*—Egun on, Ganix.

*Ganix.*—Erretore jauna, emen naiz berriz ere. Arrazoia zuan berorrek. Konzientziaren danga baiño kastigu gogorragorik ez da. Konfesioan penitentziatzat esan dit lau meza urtean eman-arazteko il dedanaren alde, eta gaiñera arengatik iru Agur Maria egunero esateko. Baiña nere alabari ere kaltea ekarri diot eta or dago negarrez bere ezkontzako laguna preso sartu dutelako. Antoni ere kalte egin diot, preso baita, eta

*txaturik... kalte ere egin diot Antoni, preso baita eta naski zafraka baiterabilkate enegatik. Horieri egin kaltea nola behar du erreparatu?*

*Erret.—Hortarik ari bazira, kalte egin duzu ere bertze asko jenderi: lekukotzat deithuak izanen direneri, phazka eman diozuten mihi gaxtoeri, hetaz jorratuak izanen direneri. Eskandala, ithurri bat bezala duzu... Ithurria idekiz geroz ez du babilio ibiltzea handik jali uraren ondotik... Penetan ezarri ditutzunentzat egin azu, behin nik eman penitentzia, eta gainerat, bertze ahal ditutzun guziak... Eta, zaude deskan-tsuan.*

*Ganix.—(Bihotza joa) Horiek guziak, ene faltaz...ene falta handiaz... Ha, ez naiz sekulan salbatuko. Gisa huntako bizia ez da zakurrentzat ere on. Hola bizitzea baino obe da bere burua garbitzea ere.*

*Erret.—Errexago da arbol kolpatua, sendatzea baino pikatzea. Bati koleraz bizia pikatu diozula-eta, ez ahal diozu orai, zure buruari, etsimenduz, gauza bera egingo? Jainkoa ona da eta haur prodigoari bethi besoak zabalik dauzka. Behozu othoi Jainkoaren oneziari eta ez haren azoteari, eta, othoi orai, zoazi zure lanetarat... Zure go-*

bearbada makillaka erabilliko dute nigatik. Oiei egindako kaltea nola bear det erreparatu?

*Erret.*—Orrela asten bazera, beste jende askori ere egin diozu kalte: testigu bezela deituak izango diranei, zer esana eman diezun mingain gaiztoei, oietaz jorratuak izango diranei. Eskandaloa, iturri bat bezela dezu. Bein iturria idiki ezkerro, alperrik ibilliko zera andik irtendako ura biltzen. Naigabetu dituzun oien alde egin zazu nik emandako penitentzia, eta gaiñera al dituzun beste guztiak. Eta zaude pakean.

*Ganix.*—(*Biotz eroria*) Oiek danak nere faltaz, nere falta aundiaz. A, ez naiz sekula salbatuko. Bizimodu au ez da txakurrentzat ere on. Ola bizi baiño, obe da bere burua garbitu.

*Erret.*—Arbola gaixotua errezago da eba-kitzea, sendatzea baiño. Zure aserrean iñori bizia kendu diozula-ta, orain etsipenez, zure buruari gauza bera egin nai al diozu? Jainkoa ona da eta seme galduari beti besoak zabalik dago. Begira, otoi, Jainkoaren ontasunari eta ez aren zigorrari, eta orain zoaz zure lanetara. Zure gogoa ez dedilla barruko kezka oiekin bueltaka ibilli.

*goa alha dadiela ez zu baitan, bainan inguruko alhapidetan.*

Ganix.—*Errexago da erraita, obratzea baino. (Jalitzen da)*

Erret.—*(Bakarrik, bizar egiteari berritz ere lotuz) Ha, zonbat mota giren mundu huntan. Batzuk zetabe larriegia hartzen, beren kontzientziaren ikertzeko... Bertzek aldiz, xehegia. Izariko zetabia emaguzu, izariko, Jainko maitea... (Athea joiten dute... erretora kexu) Aintzina...*

Ganix.—*Berritz ere, ni naiz.*

Erret.—*Bon... Zer duzu oraino ere? Ez duzia aski argitasun ukhanik?*

Ganix.—*Barkatuko duzu, jauna, bainan betbetan orhoitu naiz... Nago kofesio ona egin othe dudan... Urriki behar da izan Jainkozkoa... Nik aldiz krimaz urriki dut, ez baitezpada Jainkoaren gatik, bainan ekharri dauzkidan ondorio gaxtoen gatik... Beraz, urriki ez dut Jainkozkoa, bainan enezkoa, eta ene kofesioak ez du deus balio.*

Erret.—*(Bizi bizia) Ba... Zure kofesioa bali da, eta hura berritz eni ez aipha... Jainkoaren ordainaren ganat jin zirenaz geroz, hortarik ageri da Jainkoari nahi ziniola barkamendu galdatu... Kontrizionezko aktan ere hala erran duzu "Ene Jainkou*

*Ganix.*—Errexago da esatea, egitea baiño.  
(*Irtetzen da*).

*Erret.*—(*Bakarrik; bizarra egiten asten da berriz ere*) A, zenbat jende-modu geran mundu ontan. Batzuk, beren konzientzia aztertzeke, galbai lasaiegia artzen dute. Beste batzuk, berriz, estuegia. Neurritzkoa, Jauna, emaguzu neurritzko galbaia, Jainko maitea. (*Atea jotzen dute; erretorea aserre*) Aurrera.

*Ganix.*—Berriz ere ni naiz.

*Erret.*—Zer nai dezu ba? Ez al zaizu nainko argitasun eman?

*Ganix.* — Barkatu zadazu, jauna, baiña beingoan oroitu naiz. Uste det nere konfesioak ez duala balio. Damuak Jainkozkoa bear du izan. Nik damu det, bai, eriotza ori egin izana, baiña apika ez Jainkoarengatik, ekarri dizkidan ondore txarrengatik baizik. Beraz,, damua ez det Jainkozkoa, eta konfesioak ez du ezer balio.

*Erret.*—(*Bizi-bizi*) Bai, zure konfesioak balio du, eta ura ez neri berriro aipatu. Ez al zera ba etorri Jainkoaren ordearengana? Ortik ageri da Jainkoari nai zeniola barkamena eskatu. Maite-damuzko otoitza esatean ere ala esan dezu: “Damu det biotz-bio-

*handizki damu dut zu ofentsaturik?"... Aditzen duzu: "Zu ofentsaturik"...*

*Ganix.—Ba, eta urrikia da, berritz ez erortzeko xede fermu bat izaitea... eta nik aiphatu dautzut, hura hil-eta, orai ene burua behar dudala garbitu... Beraz ez nuen xede fermurik berritz ez hasteko, ene burua hiltzea aiphatu dudana geroz.*

*Erret.—Bi dira erraitea eta egitea... Erran ba-duzu: Garbituko zinuela zure burua, baina barne barnetik bertzerik pensatzen zinen... oraino bizi zirenaz geroz... Eta orai, zoazi othoi hemendik eta lot zaite zure egun guzitako laneri.*

*Ganix.—Ontsa da, jauna... Ontsa da... (Jalitzen da)*

*Erret.—Zer deubru... Ez duta ene kokotsari bizarra kentzeko astirik ere ukhanen, etxe huntan... Pazientzia behar dela bekatoreekin, nahi dut. Baina, pazientzia soberakina ez othe da ahulezia. Hasteko, gisa ortako izpirituak, izpiritu eri batzu dira... Mihikuen da horien sendatzea, aphez bezenbat. (Athea jotzen dute... kexu) He... Oraino ere... Bera balinbada, igortzen dut ba airez aire antzara ferratzerat (Idekitzen du eta eztitzen da) Ha, zuek zineztena?... Agur, andereak... (Sartzen dira Jana Mari eta Margo)*

*Biak.—Agur, jaun Erretora.*

tzez, damu det Zu naigabetua". Aditzen al dezu: "Zu naigabetua"?

*Ganix.*—Bai, baiña berriz ez erortzeko asmo sendorik ez det izan, ordea. Nik aipatu diot ura il ondoren, orain nere burua bear dedala garbitu. Beraz ez nuen asmo sendorik, nere burua iltzea aipatu dedan ezkerero.

*Erret.*—Bi gauza dira esatea eta egitea. Esan dezu, bai, garbitu bear zenuala zure burua, baiña or barruan besterik pentsatzen zenuan... oraindik bizirik zaude-ta. Eta orain, arren, zoaz emendik, eta asi zaitetz zure eguneroko lanetan.

*Ganix.*—Ongi da, jauna. Ongi da. (*Irtezen da*)

*Erret.*—Jesus, Maria ta Jose! Bizarra moztutzeko astirik ere ezin artu. Pekatariekin pazientzia bear dala, bai... baiña geiegizko pazientzia izatea ez ote da auleria, gero? Gaiñera, gisa ortako gizonak, gaixo batzuk dira. Oiek sendatzea medikuen lana da, apaizena baiño geiago. (*Atea jotzen dute; aserre*) E? Berriz ere? Bera baldin bada, antzarrak perratzer a bialduko det. (*Idikitzen du eta sosegatzen da*) A, zuek al ziñaten? Egun on, andreak. (*Sartzen dira Joana Mari eta Margo*)

*Biak.*—Egun on, erretore jauna.



Erret.—*Jar zaizte... Zer zaizte? Denak airean auzoko gertakariekin... Oraintxet, jalia da hemendik zuen Ganix.*

Jana Mari.—*Ba, jauna, athean gurutzatu gira... Badakizu, dudarik gabe, hiltzalea itzalean dela.*

Erret.—*Ha ba... Nor da?...*

Jana M.—*Anton, gure suhi behar zen xarmant hori.*

Erret.—*Segur zirea?... Aithortu dia?*

Jana M.—*Nor nahi duzu izan dadien? Engoitik libratua behar zuten, ez baliote deus itzalik atzeman.*

Erret.—*Ezkont manak igandean emaitakoak bainintuen, hobeko ditut beraz luzatzea.*

Jana M.—*Alabainan... Ez ditutzu luzatu behar, bainan bethikotz urhatu. Hunek eta Ganixek kontra egiten zautaten... Bainan ez zen ezkontza hori ene gustukoa.*

Erret.—*Eta zuk, Margo, zer diozu?*

Margo.—*(Ihardetsi gabe, nigarrez lotzen da)*

Jana M.—*Ez enia delakotz, jaun Erretora, bainan ene alaba ez duzu gero edozoinetarik... Gisa hortarat altxatua ere dut... Ez du hunek kurriada faltsorik eta kontzientzia garbi hartuko du hau, hunekin ez-*

*Erret.*—Eseri zaitetze. Zer dezute? Danak naastuak auzoko gertaerakin. Oraintxe irten da emendik zuen Ganix.

*Joana M.*—Bai, jauna, atean egin degu arekin topo. Jakingo du berorrek onezkerro iltzaillea preso sartu dutela.

*Erret.*—A, bai? Zein da?

*Joana M.*—Anton, gure suia izan bear zuan txori ori.

*Erret.*—Seguru al zera? Aitortu al du?

*Joana M.*—Zein izango da ba? Onezkero libratuko zuten ez baliote ezer arrapatu

*Erret.*—Ezkontzako deiak igandean eman bear nituan. Obe izango da beraz luzatzea.

*Joana M.*—Luzatu ez-baiña beti-betiko urratu bear ditu. Onek eta Ganixek kontra egiten zidaten, baiña ezkontza ori ez zan nere gustokoa.

*Erret.*—Eta zuk, Margo, zer diozu?

*Margo.*—(Erantzun gabe, negarrez asten da)

*Joana M.*—Ez nerea dalako, jauna, baiña nere alaba ez da gero nolanaikoa. Eman diodan aziera ere alakoxea izan da. Ez du onek ibillera txarrik egin, eta konzientzia garbiz artu lezake au, onekin ezkonduko danak.

*konduko denak... Etxea, etxeko lanak, igandetako atheraldi hori elizarat, horra hunen bizia. Ez dut bertze nehorat alhatzerat utzi. Hortako, ez nuen muthiko hori, biziki ene gogokoa... Laxoegi baita hori, jaun erretora... Erretirak hala hola... Noizean behinka igandetako meza ere karrik egiten... Eta puxka bat, bere molde eta solasetan, larria... Gure hunek, horrekin sofritu behar zuen... Hortako ez nintzan ezkontza horren alde.*

*Erret.—Bon, ontsa da, Jana Mari... Zu mintzo zira, bainan alabari da bere gogoaren agertzea. Adinerat heldua duzu... Horren barneko berri nahi nuke jakin, bere ganik.*

*Margo.—(Erdi nigarrez) Ez dakit zer erran.*

*Jana M.—Ba ahal dakit nik, jauna, ene alabaren berri. Emazterik etxean ez zutelata, aita semek hau ontsasko enganatua zuten, beren etxean sartzeko... Emazte bat, edo obeki sehi bat beretzen baitzuten... Ikusten duzia gaixo haur hau, han bakarrik, bi gizonen zerbitzari.*

*Erret.—Bon, beraz, manarik ez dut emanen.*

*Jana M.—Alabainan, jauna... Ez ahal zi-*

Etxea, etxeko lanak, igandetako ateraldi ori elizara, orra onen bizia. Ez det beste iñora joaten utzi. Orregatik mutil ori ez zan bate-re nere gogokoa. Lasaiegia baita, jauna. Erretira txarrak. Noizean bein igandetako meza ere uzten du. Eta bere oitura eta itzetan ba-da pixka bat lotsagabea. Gure alabak orrekin asko sufritu bearke zuan. Orregatik ez nintzan ezkontza orren alde.

*Erret.*—Ondo dago, Joana Mari. Zuk itze-egin dezu, orain alabak bear du bere gogoa agertu. Adiñera eldua da. Orren barruko berri nai nuke beragandik jakin.

*Margo.*—(*Erdi negarrez*) Ez dakit zer esan.

*Joana M.*—Nik badakit, jauna, nere alabaren berri. Etxean emakumerik ez dutela ta, aita semek au ederki engañatu zuten, beren etxean sartzeko. Emakume bat, edo obe-ki esateko, neskame bat irabazten baitzuten. Zer egingo zuan ume gaixo onek, an bakarrik, bi gizonen serbitzari?

*Erret.*—Ederki. Beraz, deiak ez ditut emango.

*Joana M.*—Jauna, nola nai du berorrek nere alaba kriminal baten emazte biurtu de-din?

*nuke nahi ene alaba krima egile baten emazte bilhaka dadien.*

Erret.—*So egizu, Jana Mari... Zuk diozu Anton dela kriminela... Nik, oraino segurik ez dut holako segurtamenik... Bertzalde, zure alaba kontseila dezagun, ba zuk eta ba nik... Bainan berari da deliberamenduen hartzea bere geroari buruz... Memento-kotz, ez daki berak zer egin... Ez dezagun bortxa... Utz diezogun gogoen egiteko ephea... Eta, berak hautatu bezala izan da diela horren harat-hunata...*

Jana M.—(Pindartua) *Ho, jaun Erretora, uste nuen, hola altxatuz geroz bere haurra, solas goxoagorik zor zuela ama batek, zure ganik.*

Erret.—*Ez dautzut errespeturik galdu, bainan erakutsi. Norbaiti errespetua erakusten baita hari egia erranez, eta ez solas lausenkari eta zilinga batzu hari adi-araziz.*

Jana M.—*Ontsa da, jaun Erretora... Ez du zure erakaspena ahantzia izanen... Zato, Margo. (Jalitzen dira, mutur)*

Erret.—(Kexu, berritz ere bizarrari lotuz) *Hanbat gaxto ez bada kontent... Emazte hori profeta bat bezala mintzo zautzu... Bere alaba saildua duela... Uli bat ba hobe ki... Ez da ontsa alabak sobera laxoegi al-*

*Erret.*—Begira, Joana Mari. Zuk diozu Anton dala kriminala. Nik oraindik ez det olako ziurtasunik. Beste aldetik zure alabari bear diogu konseju eman, bai zuk eta bai nik ere. Baiña bere etorkizunari buruz erabaki artzea, berari tokatzen zaio. Momentu ontan berak ez daki zer egin. Ez dezagun beartu. Utzi dezaiogun pentsatzeko epea. Eta berak autatu bezela, izan dedilla auzi onen atzera-aurrera.

*Joana M.*—(*Sumindua*) O, jauna, nik uste nuen bere aurra ola azi ondoren, itz gozoagorik merezi zuela ama batek berorrendik.

*Erret.*—Nik errespetorik galdu ez, baiña erakutsi egin dizut. Norbaiti zurikeriak edo labankeriak esan bearrean, egia esaten zaionean, ari errespetua erakusten zaio.

*Joana M.*—Ongi da, jauna. Zure erakutsia ez da aaztua izango. Zatoz, Margo (*Ateratzen dira, mutur*)

*Erret.*—(*Aserre; berriz ere bizarra egi-ten asten da*) Ainbat txarrago beretzat, entzun nai ezpadu. Emakume ori profeta bat bezela mintzo zaizu. Bere alaba santa bat omen da. Euli bat baiño ohea. Alabak lasaiegi azitzea ez da gauza ona, baiña zo-

txatzea, bainan ez eta ere tinkiegi... Laxoegi utzia harrotzen da eta galtzen... Tinkiegi altxatua berriz, edo eñul bat bilhakatzen edo azpiz eta gordeka ditu hartzen, ageriki h a r ez dezazken libertateak... Horren alaba ez dakit, funtsean, batere zer den... Uli bat iduriz... Nun ez den: Kanpo ur geldi, eta barnez, erakitan ari... (Athea joiten dute... Izigarri kexu, ahape-tik) Bon... Deubrua sar... Ha, barka, Jainko maitea... (Idekitzen du) Te... Zu hemen. Luix.

Luix.—(Hotzki) Ba, jaun Erretora, bertze askoren ondotik, ene solasek ere izanen ahal dutela entzule, zure etxean...

Erret.—Zertarat heldugo duzu?

Luix.—Ene semea ez omen da bakarrik preso altxatua, bainan hemendik jali-berri den andere horrek dionaz, hura bera omen da gizon hiltzalea... Zure ahotik hala ikasia omen du.

Erret.—Ez dut nik holakorik aipatu... Saltsa egileri jazar zaite eta ez eni.

Luix.—Agian, jauna, agian,... Bainan, denenak entzun behar baitira, jakin-azu, Mixel Larralde, gure etxetik afaldu-eta urrundu delarik, ba semea eta ba ni oherat sartu gira... Eta, gure etxetik, nehor ez da goiza artio higitu... Horra egia...

rrotzegi azitzea ere ez. Lasaiegi azitakoa, ausarta egin eta galdu egin oi da. Zorrotzegi azitakoa, berriz, edo iñozo bat biurtzen da, edo azpitik edo ixil-ixillean artzen ditu, agerian artu ez ditzazken libertadeak. Nolanai ere, orren alabaz nik ez dakit tutik ere. Euli bat dirudi. Ez ote da gero: kanpotik ur geldia, eta barrutik irakiña? (*Atea jotzen dute; izugarri asaldua; aopean:*) Atzera ere... Milla demonio! A, barkatu, Jainko maitea. (*Idikitzen du*) Ola, zu emen, Luis?

*Luis.*—(*Otz-otzik*) Bai, jauna, beste askoren ondotik, nere itzak ere izango al dute entzule berorren etxean.

*Erret.*—Zertara etorri zera?

*Luis.*—Emendik irten dan andre ori ari da esaten, ez bakarrik nere semea preso sartua izan dala, baiña baita ura bera dala gizon iltzallea ere. Berorren aotik ala omen du ikasi.

*Erret.*—Nik ez det olakorik aipatu. Saltsa jartzen dutenei kontuak eskatu, eta ez neri.

*Luis.*—Ala izango da bai, jauna. Baiña danenak entzun bear dira ta, jakin beza, Mitxel Larraldek gure etxean apalduta gero alde egin zuela, eta gu biok, bai semea eta bai ni, lotara joan giñan. Eta goizera arte gure etxean ez da iñor mugitu. Orra egia.



Erret.—*Eta, zertan da Antton?*

Luix.—*Antton, jendarmek berekin hartu eta joan dutela badakit. Zafraka ibili dutela ere, fama jali dute. Aithortu ere duela. Funtsarik deus ez dakit... Bainan, ni segur naiz, ene bortz erhiak esku muthurrean ditudan bezen segur, ene semeak ez duela phits ikustekorik krima hortan, phits.*

Erret.—*Jakin azu, Luix, zure semeari ene estimua beiratzan diotela. Akusatua dena ez baita baitezpada hobendun. Ondoko egunek eginen ahal dute argi...*

Luix.—*Ba... argia... Ez dut, nik ere, berzterik galdatzen.*

Erret.—*Antton ikusiko duzia?*

Luix.—*Ahal badut ba, eta lehenbailehen.*

Erret.—*Errozu Erretora maiz harekin dela gogoz eta harentzat othoitzean ari dela.*

Luix.—*Milesker, jaun Erretora. Estimatzan dut zure egitatea... Eta laster izanen ahal dut harekin buruz-buru egiteko padara.*

Erret.—*Agian, agian, Luix.*

Luix.—*Agur, jaun Erretora.*

Erret.—*Ba, agur Luix... (Jalitzen da... bakarrik) Ha, zer behar othe daukute jali*

*Erret.*—Eta zertan da Anton?

*Luis.*—Anton guardiak berekin artu eta eraman dutela badakit. Makillaka erabilli dutela ere otsa zabaldu da. Baita aitortu duela ere. Tajuzko gauzarik ez dakit. Baiña ni seguru naiz, nere bost beatzak esku-muturrean ditudan bezin seguru, nere semeak ez duela ezertxo ere ikustekorik krimen ortan, ezertxo ere.

*Erret.*—Jakin zazu, Luis, zure semeari nik estimazio guztia gordetzen diodala. Salatua izateak ez du esan nai errudun danik. Ondoko egunak egingo al dute argi!

*Luis.*—Argia... Nik ere ez det besterik eskatzen.

*Erret.*—Ikusiko al dezuz Anton?

*Luis.*—Al badet bai, eta lenbailen.

*Erret.*—Esaiozuz Erretorea gogoz eta biotzez berarekin maiz dagoela, eta berarengatik otoitzean ari dala.

*Luis.*—Milla esker, erretore jauna. Asko estimatzen det berorren borondatea. Eta aurki izango al det arekin buruz-buru egoteko aukera!

*Erret.*—Ala izan dedilla, Luis.

*Luis.*—Agur, erretore jauna.

*Erret.*—Bai, agur, Luis. (*Irtetzen da; ba-*

tribunaleko gizonek? Mihi gaxtoek jada egi-  
na dute beren jujamendua... Antton eta An-  
tton daukate hobendun... Ha, mihi saltsa...  
saltsa ikharagarria... (Athea jotzen dute...  
kexu) Hee... Batere ez diot idekitzen... Ez  
da hau bizi bat: bethi norbeit athean. Aski  
du joileak bertze tenore batez jitea.

Ganix.—(Sartuz) Jauna, sartzeko erran  
duzia?... Ez dut phitsik entzun.

Erret.—(Idor) Ez... Ez dut sartzeko erran,  
bainan orai barnean zira.

Ganix. — Barkatu jauna, kofesatu nahi  
nuke.

Erret.—Ez... ez zaitut kofesatuko... Erra-  
na dautzut zure bekatuak barkatuak ditu-  
tzula. Aditzen duzu: azken absoluzioeaz  
barkatuak... denetaz kito zirela.

Ganix.—Beraz ez du balio penitentziarik  
egin dezadan, denetaz kito naizenaz geroz.

Erret.—(Fite eta samurki) Bekatuak ba-  
ditu bi ondorio. Samur ezartzen zitu Jain-  
koarekin, eta zordun... Absoluzioea uka-  
nez geroz, ez zira gehiago samur Jainkoa-  
rekin, bainan zordun, ba... Eta zor hori.  
mundu huntan ez bada bertzean beharko du-  
zu pagatu, zerurat sartzekotz... Orai bazi-  
rea zertako behar duzun penitentzia egin?

Ganix.—Halere nahi nuke kofesatu... Ene

*karrik*) A, zer aterako ote digute tribuna-  
leko gizonak? Mingain gaiztoak egiña dute  
beren juizioa. Anton eta Anton jotzen dute  
errudun. A, mingain-saltsa, saltsa ikaraga-  
rria! (*Atea jotzen dute; aserre*) Eee? Ez noa  
zabaltzera. Au ez da bizimodua: beti nor-  
bait atean. Beste garai batean etorri dedilla.

*Ganix.*—(*Sartuaz*) Jauna, sartzeko esan al  
du berorrek? Ez det ezer entzun.

*Erret.*—(*Otz*) Ez... Ez det sartzeko esan,  
baiña orain barruan zera.

*Ganix.* — Barkatu, jauna, konfesatu nai  
nuke.

*Erret.*—Ez... ez zaitut konfesatuko. Esan  
dizut zure pekatuak barkatuak dituzula.  
Aditzen dezu: azken absoluzioaz barkatu-  
ak... eta danetaz kito zaude.

*Ganix.*—Orduan penitentziarik ere ez det  
bete bearrik, danetaz kito naizen ezkeru.

*Erret.*—(*Bizi eta aserre*) Pekatua bi on-  
dore ditu. Aserre jartzen zaitu Jainkoarekin,  
eta zordun. Absoluzioa artu ondoren, ez ze-  
ra geiago Jainkoarekin aserre, baiña zordun  
bai. Eta zor ori, mundu ontan ez bada, bes-  
tean bearko dezu pagatu, zerura sartzeko-  
tan. Ikusten al dezu orain zergatik egin  
bear dezun penitentzia?

*Ganix.*—Ala ere nik konfesatu nai nuke

*buruaren hiltzea pentsatu dudala ez baitut behin ere kofesatu.*

Erret.—(Kexu) *Ez, ez eta ez, ez zitut kofesatuko... Zure izpirituko nahaskeriak beregisa utz-atzu eta othoi zoazi etxeko lanetarat... Baitut nik ere zer egin zutaz bertzalde.*

Ganix.—*Bon, zure gain hartzen ditutzia beraz ene arrangurak?*

Erret.—*Ba, ene gain hartzen ditut... Bego denak ene gain... Eta orai, zoazi hemen-dik, eta ez ethor hunarat bederen hamabortz egunez. (Athea idekitzen dio)*

Ganix.—*Bon, eta ene burua garbitzen badut, hura ere zure gain.*

Erret.—*Bai eta ere... Orduan bat gutiago eta halabiz... (Athea hetsi eta) Atx... Sobrasko erran diot... Barka, Jainko maitea... Zer nahi duzue? Aski delarik aski da... Bethi sainga bera. Eztitasuna behar dela bekatorosekin... ba, ba... Predikatzea da errexenik... Obratzeak emaiten dauku lan...*

(O I H A L A)

ba... Nere burua iltzea pentsatu dedala ez det bein ere konfesatu ta.

*Erret.*—(*Aserre*) Ez, ez eta ez, ez zaitut konfesatuko. Zure animako naaspil oiek utzi itzazu bertanbera, eta, faborez, zoaz etxeko lanetara. Nik ere baditut nere zeregiñak, zutaz kanpo.

*Ganix.*—Ongi da. Berorren gain artzen al ditu beraz nere kezak?

*Erret.*—Bai, nere gain artzen ditut. Beude danak nere gain. Eta orain zoaz emendik, eta ez etorri onera gutxinaz amabost egunean. (*Atea idikitzen dio*)

*Ganix.*—Ederki, eta nere burua garbitzen badet, ura ere berorren gain.

*Erret.*—Baita ere. Orduan bat gutxiago, eta amen. (*Atea itxi ondoren*) Kontxo, geiegitxo esan diot. Barkatu, Jainko maitea. Zer nai dezute? Baiña au da gaiñez eragiteraiño. Beti lelo berbera. Biotz biguñia bear dala izan pekatariekin? Bai, bai. Predikatzea erreza da. Egiteak ematen digu lana.

O I A L A

## Bigarren gertaldia

Joka lekua: Poliza bulego bat.

Poliza.—*Bon, behar ditugu beraz mintzarazi... Hor diera denak?*

Jendarma.—*Ba, hiru barnetan ezarriak ditugu, elgarrekin ez diten gurutza.*

Poliza.—*Ez da dudarik, hiltzalea horietan da... Ean, berritz aipha-azkitzu xeheki heriotzearen xehetasunak.*

Jendar.—*Hila bakarrik bizi zen... Bere ardi bordan zuen bere biziteia. Aratsarekin, Antonen etxean zen gaztain erre jaten. Handik erretiratu da ontsa jan eta edan ondoran, hamekak hirian. Goizean, Antonek du atzeman haren gorphutza borda aintzinean. Aizkoraz hila zen eta lastoz eta petrolez errea.*

Poliza.—*Zoin tenorez othe?*

Jendar. — *Gauerdi aldean, ikhertzaleen arabera. Goizeko zazpitan, Anton etorri da gu abisatzerat. Bordan ez dugu hiltzalearen arrastorik atzeman. Mixelen ganberan ez zen*

## **Bigarren gertaldia**

**JOKA-LEKUA:** *Polizien lantegia.*

*Polizia.*—Ederki, orain kontua da aitortu dezatela.

*Guardia.*—Bai, iru gelatan jarriak ditugu, alkarrekin itzegin ez dezaten.

*Polizia.*—Ez da dudarik, iltzallea oien artean da. Ia, berriz ere aipatu itzazu banabanaka eriotzaren gora-berak.

*Guardia.*—Illa, bakarrik bizi zan. Bere ardi-txabolan zeukan bere bizi-lekua. Gauetan, Antonen etxean izan zan gaztaiña erre-ak jaten. Andik alde egin zuen ondo jan ta edan ondoren, amaikak inguruan. Goizean, Antonek arkitu du aren gorputza txabola-aurrean. Aizkorakin illa zan eta lastoz eta petroleoz errea.

*Polizia.*—Zein ordutan izan zan eriotza?

*Guardia.*—Gauerdi aldean, aztertu dutenak diotenez. Goizeko zazpiretan Anton etorri da gu abisatzera. Txabolan ez degu iltzaillearen arrastorik arkitu. Mitxelen gelan



*deus arroaturik. Bere diruak han zituen oso osorik. Ez dute beraz ebasteko hil. Nehork ez dio etsaiarik ezagutzen. Ez zuen ere emaztekilakorik. Hortako pentsatu dugu kalapita zombaiten ondotik norbaitek, bere errabian, garbitu duela.*

Poliza.—*Ba... Ez ditake bertzerik hor... Eta kalapitak, edariaren ondorioak baitire maizenik, jakin duzia hanitz edan othe zuten afaritan?*

Jendar.—*Ba... Lau pinta hiruen artean.*

Poliza.—*Eta, Antonek, zer aithortu du orai artio?*

Jendar.—*Dio Mixel joan-eta, oherat sartu dela... Goiza artio lo egin duela. Eta goizean, ardi tratu bat elgarrekin bezperan hasia zutelakotz, bordarat joan zaiola... Eta hola duela arrapatu haren gorphutza.*

Poliza.—*Ba... Maiz kriminela krimako tokirat berritz itzultzen da.*

Jendar.—*Krima bezperan eta biharamunean, ez du euririk egin. Gauaz ba aldiz, frango polliki ere. Eta preseski, Antonen etxean atzeman ditugu gapelu, soineko arropa eta botak, arras bustiak eta busti berriak. Erran dauku, zombait egun hartan zokorat aurthikiak zituela puska horiek, baina galtzen hegaletan eta botetan baziren*

ez dute ezer ostu. Bere diruak an zituen oso osorik. Ez dute beraz ostutzeko il. Inork ere ez dio etsairik ezagutzen. Emakume konturik ere ez zuen. Orregatik pentsatu degu, burruka batzuen ondoren, norbaitek bere amorruan garbitu duela.

*Polizia.*—Bai. Or ez dago besterik. Burrukak edariaren ondoreak izaten dira maizenik: jakin al dezu aparitan asko edan ote zuten?

*Guardia.*—Bai. Lau litro iruren artean.

*Polizia.*—Eta Antonek orain arte zer aitortu du?

*Guardia.*—Mitxelek etxetik alde egin zue-nean, oera sartu zala. Goizera arte lo egin duela. Eta goizean, ardi-tratu bat elkarrekin bezperan asia zutelako, aren txabolara joan dala. Eta ola arkitu duela aren gorputza.

*Polizia.*—Bai. Kriminala maiz itzultzen da krimen-tokira.

*Guardia.*—Krimen-bezperan eta biaramo-nean ez du euririk egin. Gauaz, berriz, bai, eta franko poliki gaitzera. Eta ain zuzen, Antonen etxean arkitu ditugu txapela, soifnekoak eta botak busti-bustiak eta busti berriak. Esan digu orain dala zenbait egun hota zituela erropa oiek bazterrera, baiña gal-

*belhar pherde eta iratze luma batzu, fresko freskoak... Beraz, puska hek, soinetik kendu berriak zituen... Hortarik jujatu dugu hura zela hobendun eta segidan arrastatu dugu.*

*Poliza.—Eta, Antonen aitak zer dio?*

*Jendar.—Dio, haren etxean ez dutela hilarekin deus kalapitarik pasatu... Arras adixkide elgarretarik berexi direla eta aita semeak berehala ohean sartu direla... Bertzalde, ez dugu inguru horietan nehor ikusten, Antonez kanpo, holako egitate baten kapable laitakenik... Hilaren auzo hurbilena, Ganix eta hunen familia, biziki zintzoak dire... Ganix bera izaitekotz bitzisko aire, dena sinu eta othoitz... Horren alabarekin ezkontzekoa zen Anton. Anton aldiz, freskoan gizona bada, edan-eta arras zakartzen denetarik da... Jada, hunarat ekharria izan dugu kolpeka batzuen ondotik... Erretiretan, bethi nahaskerian behar zuen ari.*

*Poliza.—Ba... Ez da dudarik... Hori dugu gure ihizia. Orai da, nola aithortzerat bilduko dugun.*

*Jendar.—Jada egin-ahalak egin ditugu aithorarazi nahiz, ba ezitik eta ba bortitzetik.*

*Poliza.—Jinen da ba noizbait pilota pun-*

tzen egaletan eta botetan baziran belar berde eta garo-luma batzuk, fresko-freskoak. Beraz erropa oiek soñetik kendu berriak zituen. Ortik juzgatu degu ura zala erruduna, eta segitun preso artu degu.

*Polizia.*—Eta Antonen aitak zer dio?

*Guardia.*—Aitak dio bere etxean ez dutela illarekin batere burrukarik izan. Oso adiskide moduan berezi dirala elkarrengandik, eta segitun aita-sumeak oean sartu dirala. Beste aldetik, inguru auetan ez degu beste inor ikusten, Antonez kanpo, orrelako gauza egiteko kapaz danik. Mitxelen artegitik gertuena: Ganixen etxea; Ganix eta onen familia, guztiz zintzoak dira. Ganixek berak badu eskrupuloso-antza, dana siñu eta otoitz. Orren alabarekin ezkontzeko zegoen Anton. Anton, berriz, gafiñerakoan gizona bada, edandakoan erabat zakartzen diran oietakoa da. Lenago ere, inoiz ekarri izan degu onera, astindu batzuen ondoren. Erretira-orduetan beti iskanbillaren bat sortu bear zuen.

*Polizia.*—Bai. Ez da dudarik. Ori degu gure txoria. Orain kontua da nola ekarriko degun aitortzera.

*Guardia.*—Lenago ere egiñalak egin ditugu aitorrarazi nairik, bai bigunetik eta bai gogorretik.

parat... Mando bihurrienak hezten dira, aski akituz gero... Bon, lotuko gira beraz lanari. Eta gelditu gabe, 24 oren, eta 24 oren ez badira aski, bertze hainbertze edo gehiago, pasatuko ditugu kitzikan... Athera-ko ahal diozu zerbait... Zu ariko zira ez-titik... Borthitzaren egitea aldiz, bego ene gain.

Jendar.—Ontsa da.

Poliza.—Bon, sar araz-zazu Anton.

(Bera aphailatzen da bulegoan, alegia paperetan galdua. Anton sartzen da, eskuak estekan, kara akitua. Poliza xutiturik, aphur bat hunarat eta hunarat dabil, hitzik jali gabe. Borthizki mintzo): *Hire etxean aurkhitu arropa eta bota busti hek, noiz bustiak zitukan?*

Anton.—Zonbait egun lehenago.

Poliza.—Zonbait egun lehenago? Zonbait egun?

Anton.—Hiru lau egun.

Poliza.—Nun izan hiz arropa horiek hola bustitzeko?

Anton.—Ardien biltzen, mendian.

Poliza.—(Boza saminduz) *Krima aintzineko zortzi egun horietan, ez dik euririk egin... Nola dituzkek busti arropak, euririk egin gabe?*

*Polizia.*—Etorriko da noizbait pelota eskura. Mandorik biurrienak ere ezitzen dira, aski nekatu ondoren. Asi gaitzen ba lanean. Eta etengabe 24 ordu, eta 24 ordu ez badira aski, beste ainbeste edo geiago emango ditugu zirika-lan ortan. Aterako al diogu zerbait. Zu ariko zera bigunetik. Bide la-tza bego nere kontura.

*Guardia.*—Ongi da.

*Polizia.*—Sar-arazi zazu Anton. (*Bera jartzzen da maian, paperen artean murgildua bezela. Anton sartzen da, eskuak loturik, itxura nekaturia. Polizia zutiturik, alde batera ta bestera dabil, itzik esan gabe. Aserre mintzo*) Ire etxean arkitu diran erropa eta bota busti oiek, noiz bustiak ituan?

*Anton.*—Zenbait egun leenago.

*Polizia.*—Zenbait egun leenago? Zenbat egun?

*Anton.*—Iru-lau egun.

*Polizia.*—Nun izan aiz erropa oiek ola bustitzeko?

*Anton.*—Ardiak biltzen, mendian.

*Polizia.*—(*Boza zakartuaz*) Krimen aurreko zortzi egunetan ez dik euririk egin. Nola busti ditezke erropak, euririk egin gabe?

Anton.—*Ihintza bazen eta iratzeak handi dira.*

Poliza.—*Noiztik ihintzak bustitzen ditik espaldak eta buruko boneta?*

Anton.—*(Ixilik dago).*

Poliza.—*Emak errepusta.*

Anton.—*Izerdia ere hor da.*

Poliza.—*Noiztik izerdiak bustitzen ditik arropak kanpotik eta barnetik xuko usten?*

Anton.—*(Ixilik dago).*

Poliza.—*Emak errepusta.*

Anton.—*(Bethi ixilik).*

Poliza.—*(Fermuki) So egi-zak. Ez dik batio egun argia bezen argi den gauza baten ukha eta ukha hartzea... Hik il duk Mixel... Errak ba... Paper hau sina-zak eta fini.*

Anton.—*Ez dut nik hil... Ez dut deus sinatuko.*

Poliza.—*(Orhoaz) Zer!... Hala zer uste duk? Hire kasko-gogorkeriak salbatuko hue-la? So egi-zak... Azken aldikotz, sina-zak paper hau eta bakea emak... To, hemen sina-zak.*

Anton.—*(Papera authikitzen dio).*

*Anton.*—Intza zan eta garoak aundiak dira.

*Polizia.*—Noiztik intzak bustitzen dizkik bizkarra eta buruko txapela?

*Anton.*—(Ixilik dago)

*Polizia.*—Erantzun zak.

*Anton.*—Izerdia ere or da.

*Polizia.*—Noiztik izerdiak bustitzen dizkik erropak kanpotik eta barrutik legor uzten?

*Anton.*—(Ixilik dago)

*Polizia.*—Erantzun zak.

*Anton.*—(Beti ixilik)

*Polizia.*—(Latz) Begira zak. Ez dik batio egun argia bezin argi dan gauza bat uka eta uka ibiltzea. Ik il dek Mitxel. Aitortu zak ba. Paper au firmatu zak eta akabo.

*Anton.*—Ez det nik il. Ez det ezer firmatuko.

*Polizia.*—(Orroaka) Zer!... Zer uste dek ba? Ire kasko gogorrak salbatuko auela? Begira: azkenekoz, firmatu zak paper au eta kito. To, emen firmatu zak.

*Anton.*—(Papera botatzen dio)

*Polizia.*—(Bi belarrondoko ematen dizkio



Poliza.—(Bi zaflako ematen diozka eta ilhetarik tira aldi bat... izigarri kexu) *Zer dituk zirtzilkeria horiek?... Jakin-zak espantuen denbora iragana dela eta, onez onean ez baduk aithortu nahi, bertze molderik ere artuko dugula... Paper hau sinatuko duk edo bertzenaz hanbat gaxto hiretzat.*

Anton.—*Ez, ez dut sinatuko.*

Poliza.—(Irri tzar kexu batekin) *Ha, ez duk sinatuko... Ikusiko diagu... (Deituaz) Jaun Brigadiera... (Hau agertzen da) Ez omen du jauntto hunek bere aithormena sinatuko... Zuk ezagutzen baituzu, nik baino hobeki, aphur bat uzten dut zure gomen-dio. Agian plegatuko zautzu eni baino hobeki. Agian... Bere onetan... Aithorarazteko salan ez dadien pasa... Aditzen duka?... Hire onetan... (Irri mehar tzar batekin ja-litzen da)*

Jendar.—(Eztiki) *Beldur nuk hiretzat... Bahakik, hobe duk gure eskutan hizeno, hire aithorren egitea... Horien eskuetan, izigarriak behar baiuzkek pairatu... Berdin, galdua hiz... Hire arropen erakusten ditek, gauaz kanpoan hintzela.*

Anton.—*Ez dut nik nehor hil.*

Jendar.—*Ukatuago eta galduago hiz... Aithortzen baduk berehala dena den, tribuna-*

*eta illeetatik tira-aldi bat, izugarri aserre)*  
Zer dituk lotsagabekeri oiek? Koplakin  
ibiltzeko denbora pasatu dek, eta onez-one-  
an ez badek aitortu nai, beste bide batetik  
ere asiko gaituk. Paper au firmatu zak edo  
bestela ainbat txarrago iretzat.

*Anton.*—Ez, ez det firmatuko.

*Polizia.*—(*Irriparre maltzur batekin*) A,  
ez dek firmatuko. Ikusiko diagu. (*Deituz*)  
Brigada jauna! (*Au agertzen da*) Jauntxo  
onek ez omen du bere aitormena firmatu-  
ko. Zuk nik baiño obeto ezagutzen dezu ta,  
pixka bat zure kontura uzten det. Apika  
zuk errendituko dezu nik baiño obeto. Api-  
ka... Bere onerako. Aitorrarazteko salara ez  
dedilla pasa. Aditzen dek? Ire onerako.  
(*Aire zorrotz txar batekin irtetzen da*)

*Guardia.*—(*Bigun*) Beldur nauk iregatik.  
Badakik, obe dek gure eskuetan aizen ar-  
tean ire aitorra egitea. Oien eskuetan gorri-  
ak bearko ituzke ikusi. Eta berdin-berdin  
galdua aiz. Ire erropak erakusten ditek ga-  
uaz kanpoan intzala.

*Anton.*—Nik ez det iñor il.

*Guardia.*—Ukatuago eta galduago aiz. Ai-  
tortzen badek dana dan bezela, tribunala  
bigunago uke iretzat. Zer nai dek? Danok  
izaten dizkiagu aldarte txarrak eta orduan

la eztiago hukek hiretzat... Zer nahi duk?... Deneri gerta zukek aphur bat burua gal-tzea, eta behar ez diren jestuen, orduan ibil-tzea... Lañoki aithortuz, beharbada hiru lau bat urtherekin kito hintazke... Bainan ageri garbiaren kontra hola thematuz, hire bizi guzikoa biltzen ari hiz.

Anton.—(Ixilik aphur bat).

Jendar.—Hortaratu bahaiz, dudarik gabe, bahituen hire arrazoinak ere... Zer huen?... Zerbait makhur tratutan Mixelekin?... Di-ruari atxikia zuan gero Mixel... Zer hu?... Zerbaitetan enganatu?

Anton.—Mixelek eta nik ez dugu sekulan deus makhurrik izan.

Jendar.—Uste baino kolpe dorpheagokoa emanik, ikusi dukalarik lurrean hila, nik uste, ez hakien gehiago zer egiten huen ere... Eta beharbada, ez haiz orhoit ere on-dotik zer egin dukan.

Anton.—Ez dut nik Mixel hunki, ez bizi-rik, ez hilik.

Jendar.—Pena diat, egiazki pena, hola de-baldetan gogor egoiten baihaiz. Gertatua hain duk argi eta garbi... Aithor edo ez ai-thon, berdin kondenatua izanen haiz... Ari-nago jali hintazke, bertzela plantatzen ba-hitz... Orhoit adi pixka bat hire aitaz...

burua pixka bat galtzen diagu. Zintzoki aitortuaz, bearbada iru-lau urterekin kito intzake. Baiña ageri garbiaren kontra ola tematuz, ire bizi guzikoa biltzen ari aiz.

*Anton.*—(Ixilik apur bat)

*Guardia.*—Ortaraiño eldu baaiz, dudarik gabe, izango ituan ire arrazoiak. Zer uan? Zerbait oker tratutan Mitxelekin? Diru-zalea uan gero Mitxel... Zer egin dik? Zerbaite-tan engañatu?

*Anton.*—Mitxelek eta nik ez degu sekulan ezer okerrik izan.

*Guardia.*—Uste baiño kolpe gogorragoa eman diok nunbait, eta gero, lurrean illa ikusirik, ez ekian geiago zer egiten uan ere. Eta berbada oroitu ere ez aiz egiten gero zer egin dekan.

*Anton.*—Nik ez det ikutu Mitxel, ez bizi-rik, ez illik.

*Guardia.*—Pena diat, egitan pena, ola alperrik aizelako. Gertatua ain dek argi eta garbi... Aitortu edo ez aitortu, berdin-berdin kondenatua izango aiz. Obeki aterako intzake bestela jokatz. Oroitu adi pixka bat ire aitarekin. Oraindik ire laguntzaren bearrean dek. Eta sartu aizen bidetik, ez diok aren zaartzaroari on aundirik ekarriko.

*Oraino hire laguntzaren beharretan duk... Eta, abiatu hizan bidez, ez diok lauzkatze handirik ekharriko haren zahartasunari...*

Anton.—*Ez dut nik hil Mixel.*

Poliza. — (Agertuaz) *Eta?... Zentzatu dea?...*

Jendar.—*Bethi ukhatzen du.*

Poliza.—*Aithorraren beharrik ez dugu jakiteko ean den hobendun, bainan jakiteko bakarrik zonbatetaraino den hobendun. Ez bada entseatzen bere hobenaren arintzerat, berak pekatuko ditu, kondenatua izanen baita hobendun oso gisa. (Keinu egiten dio joan dezan Anton. J. Xefa herritz agertzen da)*

Jendar.—*Frango kasko gogorra izan behar du.*

Poliza.—*Ba... ez luke eskualduna behar bertzela izaiteko... Bainan hastapena du oraino... Lotuko girelarik, hamar hamabi orenez galde eta galdeka, lausengu eta zarpaka, lerratuko da ba hori ere egiaren aithortzerat bertze asko bezala... (Athea josten dute)*

Jendar.—(Idekiz) *Hi hiza, Tartalet, zer nahi duk?*

Tart.—(Arrunt harrotua) *Jauna, ez da dudarik, orai segurtamen osoa dut... Mixelen hiltzalea...*

Jendar.—*Bon, arras ontsa duk... Baginarian jada... Orai, hail etxerat...*

*Anton.*—Nik ez det il Mitxel.

*Polizia.*—(Agertuz) Eta? Zentzatu al da?

*Guardia.*—Beti ukatzen du.

*Polizia.*—Erruduna dala jakiteko ez degu orren aitorraren bearrik. Noraiño dan errudun, ori bakarrik da jakin nai deguna. Baiña ez badu bere errua gutxitu nai, ainbat okerrago beretzat, errudun osoa bezela izango da kondenatua. (Keiñu egiten dio eraman dezan Anton. Guardia berriz agertzen da)

*Guardia.*—Buru gogor samarra da.

*Polizia.*—Bai. Bestela ez litzake izango euskalduna. Baiña asi besterik ez degu egin oraindik. Jartzen geranean amar amabi orduz etengabe galdezka, orain balaku eta gero zartakoa, irristatuko da, bai, ori ere egia aitortzera, beste asko bezela. (Atea jotzen dute)

*Guardia.*—(Idikiz) I aiz, Tartalet? Zer nai dek?

*Tartal.*—(Arlote eta zarpazar) Jauna, ez da dudarik, orain segurantza osoa det... Mitxelen iltzaillea...

*Guardia.*—Ederki. Bazekiagu dana. Orain joan adi etxera.

Tart.—Ez... Nahi dut mintzatu... Nik baitazkit zuk ez dazkitzunak...

Jendar.—Hobe, hobe... Geroxago entzuten hut... Orai badiat bertzerik egiteko.

Tart.—Berdin du... Bahakizu, atzo aratsean, ostatuan baitzen, gizon beltz buhami hura... Harek hil du Mixel. Nihaurrek ikusia diot holako kanibeta marraza bat... Ba... Sakelan dauka gorderik... Eleketan norbaitekin has-eta, eskua kanibetaren gainen pausatzen du... Hortakotz du maiz esku bat sakelan... Beldur da-eta... Eta gizon hura, hemen zen, gure herrian, Mixel hil duten gabea...

Jendar.—Bon, arras ontsa duk... Horiek guziak xehetasun baliosak dituk.

Tart.—Zaude... Ez dut oraino dena errana... Gizon horrek seinale du behakotik norbait hil duela... Behako bat badu ikharagarria... Hasteko buhame guziak begi gaxtokoak dira... Ni, ez nitzaiote hurbiltzen ere. Beldur bainaiz zorte tzar batez, zentzua galaraziko dautatela... Horiek behar liezke hemendik kasatu... Denak kasatu... Bertzenaz ez dugu oilorik ere hemen haziko... Hasteko, oiloak berak izitzen dira buhameak hurbiltzean... Gure oiloak segurik, mirua ikusten balute bezala, ihes egiten dute.

*Tartal.*—Ez, nik itzegin nai det. Nik badakizkit zuk ez dakizkizunak.

*Guardia.*—Obe, obe. Geroxeago entzungo aut. Orain badiat beste lanik.

*Tartal.*—Berdin da. Badakizu, atzo arratsean ostatuan zan gizon beltz ijito ura. Arek il du Mitxel. Neronek ikusi diot olako labana ikaragarri bat. Bai. Sakelean dauka gorderik. Norbaitekin izketan ari danean, eskua labanaren gainean eukitzen du. Orregatik maiz du esku bat sakelean... bildurra duelako... Eta gizon ura emen zan, gurre errian, Mitxel il duten gabeen.

*Guardia.*—Ederki, oso ederki. Oiek danak, berri jakingarriak dituk.

*Tartal.*—Zaude. Oraindik ez det dana esan. Gizon orrek ezagun du begietatik norbait il duela. Badu begiratu bat ikaragarria. Ijito guztiak dira begi gaiztokoak. Ni ez naitzaie urbiltzen ere. Bildur naiz patu txarren batekin zentzua galaraziko didatela. Oiek emendik bota bear lirake... danak bota. Bestela ezin izango degu emen oillorik ere azi. Oilloak berak izutu egiten dira ijitoak urbiltzean. Gure oilloak beintzat, mirua ikusi balute bezela, iges egiten dute.

*Guardia.*—Ederki, Tartalet, aski da.



Jendar.—*Aski, Tartalet, alo, aski.*

Tart.—*Zeren, jauna, oiloek, guk sudurretik bezala, gauzak mokotik senditzen dituzte... Eta buhamek badute usain berezi bat...*

Poliza.—(Orhoaz) *Aski... Ez die buhamek Mixel hil, bainan hik.*

Tart.—(Ikharatua) *Hee?*

Poliza.—*Ba, hik hil duk (Ukhailoa eginenez) Aithor zak... Hik hil duk Mixel... Hik. ba hik... Aithor zak edo burua arrailtzen deat, aithor zak...*

Tart.—(Ikharra daldaretan) *Ha, ni ez hunki... Ai, ai, ai... Ba, ba, nik hil dut Mixel, barka, barka... Ni ez hunki...*

Poliza.—*Bon, ontsa duk... Barkatzen daia, bainan hail etxerat berehala hemen-dik...*

Tart.—*Ai, ai, ai... Ba, ba gogotik eta fite ale... Ai, ai, ai... (Jalitzen da... Bertze biak irriz)*

Poliza.—*Pena da egiazko hobendunek ez baitute hain laster aithortzen. Bon, segi dezagun gure lana... Bertze auzokoak ere behar ditugu solaskatu... Sar-araz zazu othoi Antonen aita...*

Jendar.—(Jali eta berritz agertuz) *Huna Luix, Antonen aita.*

*Tartal.*—Oilloak, jauna, guk sudurretik bezela, gauzak mokotik aditzen dituzte. Eta ijitoak badute usai berezi bat.

*Polizia.*—(*Orroaka*) Aski... Ik il dek Mitxel, ez ijitoak!

*Tartal.*—(*Ikaratua*) Eee?

*Polizia.*—Bai, ik il dek. (*Ukabilla erakutsiz*) Aitortu zak. Ik il dek Mitxel. Ik, bai ik. Aitortu zak edo bestela burua ausiko diat, aitortu zak.

*Tartal.*—(*Ikara-dardaraz*) Ai, ni ez ikutu, ai, ai, ai. Bai, bai, nik il det Mitxel, barkatu, barka... Ni ez ikutu.

*Polizia.*—Bai, ongi dek. Barkatzen diat, baiña joan adi azkar emendik etxera.

*Tartal.*—Ai, ai, ai. Bai, bai, pozik eta aguro... ai, ai, ai. (*Irtetzen da... Beste biak parrez*)

*Polizia.*—Pena da egiazko errudunak ain laister ez aitortzea. Ea, segi dezagun gure lana. Beste auzokoei ere bear diegu galdetu. Sarrarazi zazu Antonen aita.

*Guardia.*—(*Irten eta berriz agertuz*) Ona Luis, Antonen aita.

*Polizia.*—Onezkero jakingo dezu zure semeak bere krimena aitortu duela.

Poliza.—*Bahakizu dudarik gabe, zure semeak bere krima aithortu duela...*

Luix.—*(Izigarri hunkitua) Zeer?... ene semeak... Ez da posible... Ez da posible...*

Poliza.—*Konprenitzen dut zure pena... Bainan hortaratu bada, nik uste baditu hobena arintzen dioten arrazoinak ere... Ez zirena biak pixka bat edanak, arats hartan?... Ez dioia Mixelek zure semeari kalapita bilhatu?... Ez zutena lehen ere zerbait makhurbide?... Zuri da zure semearen alde mintzatzea...*

Luix.—*Izigarrikeria... ez... ez dugu behin ere phitsik pasatu Mixelekin... Ez nik eta ez semeak...*

Poliza.—*Krimako gabea, ez duzia senditu semea etxetik jaltzen?*

Luix.—*Ez... afal ondoan, oherat joan gira, usaian bezala... Biharamun goizean dugu berritz elgar ikusi...*

Poliza.—*Ez duzia zuen zakurra saingaz entzun gauaz?*

Luix.—*Ez...*

Poliza.—*Alabainan, etxeko zakurrak, etxe-koak ezagutzen. Ez duzia zerbait erraiteko zure semearen alde?*

Luix.—*Ezin onhartua, ezin sinhetsia dutala horrek holakorik egin duala.*

*Luis.*—Zer?... Nere semeak? Ez da posible... Ez da posible...

*Polizia.*—Konprenditzen det zure pena. Baiña ortaratu bada, nik uste, baditu errua arintzen dioten arrazoiak ere. Ez al ziran biak pixka bat edanak, gau artan? Ez al dio Mitxelek zure semeari aserre-bidea billatu? Ez al zuten lendik ere etsaitasunen bat? Zuri dagokizu zure semearen alde mintzatzea.

*Luis.*—Izugarría! Ez, ez degu bein ere ezertxo izan Mitxelekin. Ez nik eta ez semeak.

*Polizia.*—Eriotzako gabeán, ez al dezu sentitu semea etxetik irtetzen?

*Luis.*—Ez, apal ondoan oera joan gera, beti bezela. Biaramon goizean berriz elkar ikusi degu.

*Polizia.*—Gabaz zuen txakurra ez al dezu zaunkaz aditu?

*Luis.*—Ez...

*Polizia.*—Jakiña, etxeko zakurrak etxe-koak ezagutzen. Ez al dezu ezer esatekorik zure semearen alde?

*Luis.*—Nere semeak olakorik egin duanik, ezin dedala ez onartu ta ez sifistú.

Poliza.—*Ontsa da... Berritz deithu behar bazitugu ere, egonen zira oxtiko lekuan. (J. Xefak joaiten du eta berritz agertzen da) Ez ahal da, krima hortan, aita hau semea- rekin partzuer?*

Jendar.—*Ez dut uste... Ez dugu deus arrapatu hori kondena dezakenik.*

Poliza.—*Bon... Sararaz-zazu bigarren aita, auzoko hura. (Ganix agertzen da J. Xefarekin. Ganixi mintzo) Anton hori ez duzia behin ere entzun arranguraka Mixelen kontra?*

Ganix.—*Behin ere.*

Poliza.—*Zure gustuko, zer arrazoinez du Antonek hola garbitu gizon hori?*

Ganix.—*Ha, nik ez dakit... Nik nehor ez dut akusatzen.*

Poliza.—*Ez duzia gauaz deus arrabotsik senditu? Zakur sainga, oihu edo beste?...*

Ganix.—*Ez, phitsik.*

Poliza.—*Ez duzia zerbait iduripen zertako Antonek egin duen krima hori? Ez zena bederen diru beharretan ezkontzeko?*

Ganix.—*Ho, nik phitsik ez dakit.*

Poliza.—*(Borthizki) Zuk badakizu zerbait... Zuk badakizu nor den krima egilea.*

*Polizia.*—Ongi da. Bearbada berriz ere deitu bearko zaitugu ta, lengo lekuan egongo zera. (*Guardiak eramaten du, eta berriz agertzen da*) Aita onek ez ote du parte artu semearekin batean eriotza ortan?

*Guardia.*—Ez det uste... Ez degu ezer arrapatu ori kondena dezakenik.

*Polizia.*—Ederki. Sarrarazi zazu beste aita, auzoko ura. (*Ganix agertzen da Guardiarekin. Ganixi galdetzen dio:*) Anton ori ez al dezu sekula entzun Mitxelen kontra gaizki esaten?

*Ganix.*—Bein ere ez.

*Polizia.*—Zure ustez, Antonek zergatik garbitu du gizon ori?

*Ganix.*—A, nik ez dakit... Nik ez det iñor akusatzen.

*Polizia.*—Gabaz ez al dezu iñungo abarrotsik sentitu? Txakur-zaunka, oiu edo zerbait?

*Ganix.*—Ez, ezertxo ere ez.

*Polizia.*—Ez al dezu zerbait iduripenik zergatik Antonek egin duen krimen ori? Ez al zan diru bearrean ezkontzeko?

*Ganix.*—O, nik ez dakit ezer.

*Polizia.*—(*Latz*) Zuk badakizu zerbait. Zuk badakizu nor dan iltzaillea.

Ganix.—(Ikharatua) *Hee?... Nik, nik?...*  
*Frogak nun ditutzu?*

Poliza.—(Irri maltzur batekin) *Ez zitelu ez alditxar, nik hori erran eta... Ez baitu balio... Zu ere sahets hortan egonen zira, berritz gure galdearen beha. (Izerdia xukatzen duela, J. Xefak segitzen du. J. Xefa berritz agertzen da)*

*Ez du balio, sobera bururik hauts dezagun bazterretan hobendunketan. Hobenduna Anton da... Sahetseko aldaxkak bere gisa utzirik, trunko horri ari beharko dugu jo eta jo... Sararaz-azu Antonen espos lagun beharra... Norbaitek zerbait jakitekotz, horrek badakike...*

(Margo agertzen da. Huni mintzo eztiki) *Antonek aithortu dauku bere krima. (Margok nigarrez, bisaia gordetzen du) Konprenitzen dut zure pena... Izigarri baita zuretzat, maite zinuena hortaratzen ikustea. Aiphatu dautzia, azken egun hautan, zerbait arrangura artzainaren kontra?...*

Margo.—*Ez, phitsik.*

Poliza.—*Phits, phitsik?... Kasik ezin sinhetsia da...*

Margo.—*Phitsik... Ez du horrek hil Mixel.*

Poliza.—*Ez horrek hil?... Ez ginuke zure*

*Ganix.*—(*Ikaratua*) Eee... Nik, nik?...  
Probak nun dituzu?

*Polizia.*—(*Irri maltzur batekin*) Ez asarretu, nik ori esanagatik. Ez du merezi. Zu ere txoko ortan egongo zera, gure deiaren zai. (*Izerdia txukatzen duela, Guardiak eramaten du. Guardia berriz agertzen da*)

Ez du merezi burua geiegi austea erruduna billatzen. Erruduna Anton da. Alboetako adarrak utzirik, enbor oni eldu bearko diogu eta onekin ekin aspertu gabe. Sarrazazi zazu Antonen emaztegaia. Norbaitek jakitekotan, onek jakingo du zerbait. (*Margo agertzen da. Oni bigun itzegiten dio*) Antonek aitortu digu bere krimena. (*Margok negarrez bere arpegia gordetzen du*) Konprenitzen det zure pena. Izugarria da zuretzat zuk maite zenuena ortaraiño joatea. Esan al dizu azken egun auetan zerbait artzaiaren kontra?

*Margo.*—Ez, ezertxo ere ez.

*Polizia.*—Ezertxo ere ez? Kasik ezin sinistu diteke.

*Margo.*—Ezertxo ere ez. Ez du orrek il Mitxel.

*Polizia.*—Orrek ez duela il? Orixe nai genuke siñistu, baiña nun dituzu probak?



*erranaren sinhestea bertzerik galdatzen...  
Nun ditutzu frogak?*

Margo.—*Nik, badakit.*

Poliza.—*Balinbadakizu zerbait, mintzatzeko tenorea da... Ez bazira mintzatzen, Anton galdua baita.*

Margo.—*Ahalge naiz.*

Poliza.—*Ahalge? Zertaz?*

Margo.—*Amak jakitea ez nuke nahi.*

Poliza.—*(Lañoki) Mintza zaite deskantsuan... Hemen erranak, hemen egonen dira.*

Margo.—*(Bethi duda mudetan)*

Poliza.—*Juramentu egiten dautzut... Nehork, entzuten duzu, nehork ez ditu jakinen zuk hemen erranak... Edo ez naiz gizona... Errazu lañoki dakizuna... Eta hitzemaiten dautzut egin ahal guziak eginen ditugula zu suntengatzeko.*

Margo.—*Ez zezaken Antonek hil Mixel... Anton enekin baitzen gau hartan.*

Poliza.—*Bon... Biba zu... Gaitzeko lekukotasun baliosa ekhartzen daukuzu Antonen alde... Zonbat orenetan ethorri da zure ganat?*

Margo.—*Gauerdi gabe... Mixel etxetik despeitu-eta berehala...*

Poliza.—*Zonbat orenak artio egon zirezte elgarrekin?*

*Margo.*—Nik badakit.

*Polizia.*—Zerbait baldin badakizu, itzegiteko garaia da. Ez badezu itzegiten, Anton galdua da.

*Margo.*—Lotsa naiz esaten.

*Polizia.*—Lotsa? Zergatik?

*Margo.*—Amak jakitea ez nuke nai.

*Polizia.*—(*Lasai*) Ba! Mintza zaite kezka gabe. Emen esanak, emen egongo dira.

*Margo.*—(*Beti duda-mudetan*)

*Polizia.*—Juramentua egiten dizut. Iñork, aditzen dezu?, iñork ez ditu jakingo zuk emen esandakoak. Edo ez naiz gizona. Esaidazu lasai dakizuna. Eta itz ematen dizut alegin guztiak egingo ditugula zure alde.

*Margo.*—Antonek ezin zezakean il Mitxel, gau artan nerekin zegoen da.

*Polizia.*—Biba zu! Izugarritzko aitorrera ona egin diguzu Antonen alde. Zer ordutan etorri da zugana?

*Margo.*—Gaberdia baiño len. Mitxel etxetik joan eta bereala.

*Polizia.*—Zenbat denbora egon zerate elkarrekin?

Margo.—*Oren bat. (Dolutua erranaz) Ho, ez nuke nahi nehork jakin dezan.*

Poliza.—*Ez zaitezela kexa. Sekretua ez da hemendik jaliko... Segur zirea gauerdi aintzin zurekin zela Anton?*

Margo.—*Ba, segur...*

Poliza.—*Eta, segur zirea oren bat zurekin egon dela?*

Margo.—*Ba, arras segur... Elizan ezkila ari baitzen hura urruntzean.*

Poliza.—*Bon, ontsa da... Ez aipha nehoi hemen erran ditutzunak... Horiek guretzat atxik ditzagun, zuk eta guk... Ixtaño bat egonen zira othoi sahetseko salan. (J. Xefak joaiten du eta berritz agertzen da) Beraz, krima egin du gauerdi aintzin, horren ganat joan baino lehen... Horra noiz jalizituen arropak bustiak... Bon, ari gira be-thi hobeki argitzen... Orai, sar-araz-zazu horren ama (J. Mari sartzen da. Hari mintzo) Krimako gauean, ez duzia entzun deus arrabotsik edo zakur saingarik, zuen etxe inguruan?*

Jana M.—*Ez... phitsik, usaiatz kanpokorik.*

Poliza.—*Zure alaba ezkontzekoa zena Antonekin?*

*Margo.*—Ordubete. (*Esanaz damutua*) O, ez nuke nai iñork jakin dezan!

*Polizia.*—Ez euki kezkarik. Sekretua ez da emendik irtengo. Seguru al zaude ama-biak baiño len zurekin zala Anton?

*Margo.*—Bai, seguru.

*Polizia.*—Eta seguru zaude ordubete egon dala zurekin?

*Margo.*—Bai, oso seguru. Elizan kanpaia jotzen ari zan, ura zijoanean.

*Polizia.*—Ederki. Ez aipatu iñori emen esan dituzunak. Oiek gure artean gordeko ditugu, zuk eta guk. Pixka bat egongo zera or, saietseko salan. (*Guardiak eramaten du eta berriz agertzen da*) Beraz, krimena egin du gauerdi aurretik, orrengana joan baiño leen. Eta orren etxetik irtetzean busti zituen erropak. Dana dala, bagoaz obeki argitzen. Orain sarrarazi zazu orren ama. (*Joana Mari sartzen da. Ari mintzo*) Gau orretan ez al dezu entzun bat ere otsik edo zakur zaunkarik zuen etxe inguruan?

*Joana M.*—Ez, bat ere ez, betikoa izan ezik.

*Polizia.*—Zure alabak Antonekin ezkondu bear zuen, ezta?

Jana M.—*Ba, maluruski.*

Poliza.—*Zertako diozu: Maturuski?*

Jana M.—*Ageri baitzen zer zen Anton hori... Gizon abrea... Ene alaba, jauna, horri emaita, bildots bat otsoari emaita zen... Ene alaba, gure etxean, komentu batean bezala altxatua izan baita... Jaun erretorak badaki... Ez nuen uzten jaun erretoraren bilkuretarat ere, lagunek ez zezaten gal. Enekin elizarat, eta enekin etxerat ibiltzen nuen.*

Poliza.—*Bizkitartean Antonekin noizbait egin ditu ezagutzak?*

Jana M.—*Ba... Ontsa ene gogoaren kontra... Auzo gisa, horrekin, guruzatzerat bortxatuak baiginen... Zikin horrek ene alaba enganatu du... Zer daki alabainan ene alabak biziak? Gaixoa!... Horrek daki hori, zer den gizon batekin bizitzea...*

Poliza.—*Segur zirea zure alabak hain arrotz dituela gizonak?*

Jana M.—*Jauna, ama batek ezagutzen ahal du bere alaba... Aski hurbildik segitzen ahal dut, horren urhatsen jakintsun izaiteko.*

Poliza.—*Anton jiten zena zuen etxerat?*

Jana M.—*Gure etxeko athea luzaz debe-*

*Joana M.*—Bai, zoritxarrez.

*Polizia.*—Zergatik diozu: zoritxarrez?

*Joana M.*—Agirian zegoelako Anton ori zer zan. Pizti txar bat. Nere alaba, jauna, orri ematea, bildots bat otsoari ematea bezela zan. Nere alaba, gure etxean, komentu batean bezela azi degu. Erretore jaunak badaki. Erretore jaunaren billeratara joaten ere ez nuen uzten, lagunak galdu ez zezaten. Nerekin elizara eta nerekin etxera eramaten nuen.

*Polizia.*—Ba Anton orrekin noizbait egin ditu ezagun-bideak.

*Joana M.*—Bai, ta ondo nere gogoaren kontra. Auzokoa nola degun, orrekin topo egin bear izaten genduen. Zikin orrek nere alaba engañatu du. Zer daki nere alabak biziaz? Gaixoa! Baleki jakin zer dan gizon batekin bizitzea!

*Polizia.*—Seguru zaude zure alabak ain arrotz dituela gizonak?

*Joana M.*—Jauna, iñork ezagutzekotan, amak ezagutzen du bere alaba. Ondo-ondotik segitu ditut orren pauso danak, jakiflean egoteko.

*Polizia.*—Anton etortzen al zan zuen etxera?

*katu izan diot. Azken egun hautan, senharrara eta alaba kontra bainintuen, horien ezkontza onhartu behar izan dut, eta aizu ziren elgar ikustea, bainan gure bixtan bakarririk.*

Poliza.—*Segur zirea ez zutela, zuen bixtaz kanpo, elgar ikusten?*

Jana M.—*Noiz nahi duzu elgar ikus zezaten bertzela? Ene alaba bethi enekin zen.*

Poliza.—*Gauaz ere?*

Jana M.—*(Ofentsatua) Jauna, ez ahal duzu ene alaba piltzar batentzat hartzen! Jakin-azu gure familia bethitik ohoragarria izan dela.*

Poliza.—*Bon... Hobe, hobe... Aphur bat egonen zira zu ere sahets hortan. (J. Xefak joaiten da eta bera berritz agertzen da)*

*Zer zautzu? Emazte hori, edo arras gutaz trufatzen da, edo xoro eder bat da. Nago ez othe den familia hori guzia, krima hortaz argitua... Nun ez diren partzuer. Bon, dei zazu berritz ere Anton... Behar ditugu denak buruz buru ezarri. Ean zer dioten elgarri, entzun behar dugu.*

*(Anton agertzen da... hari mintzo) Hire gogoetak egin dituka edo bethi hitz bertan hiza? Krimako gauean, etxetik jali hintzan edo etxean egon?*

*Joana M.*—Bai zera, gure etxeko atea aspalditik debekatu izan diot. Azken egun auetan, senarra eta alaba kontra nituelako, oien ezkontza onartu bear izan det, eta libre zuten elkar ikustea, baiña gure bistan bakarrik.

*Polizia.*—Seguru al zera ez zutela, zuen bistaz kanpo, elkar ikusten?

*Joana M.*—Noiz nai dezu elkar ikusi dezaten bestela? Nere alaba beti zan nerekin.

*Polizia.*—Gabaz ere bai?

*Joana M.*—Jauna, zer uste dezu? Emakume zarpildutzat artzen dezu nere alaba? Jakin zazu gure familia betitik izen onekoa izan dala.

*Polizia.*—Ederki. Ala obe. Pixka batean egongo zera zu ere saiets ortan. (*Guardiak eramaten du eta bera berriz agertzen da*) Zer iruditzen zaizu? Emakume ori, edo gutaz burla egiten ari da edo erabat burutik dago. Familia guzti ori ez ote da krimen ontaz argitua? Ez ote dute parte artu, gero? Otsegin zaiozu berriz ere Antoni. Bear ditugu danak aurrez aurre ezarri. Ea zer esaten dioten elkarri, entzun bear degu.

(*Anton agertzen da. Ari mintzo*) Pentsatu al dek ondo edo lengoan aiz orain ere? Eriotzako gauean etxetik atera intzan, bai edo ez?



Anton.—*Ez naiz etxetik mugitu.*

Poliza.—*Kasu emak zer derasakan... Berritz ere, eta azken aldikotz, emaiten deat egiaren aithortzeko padara... Krimako gaua etxean pasatu duka, edo etxetik kanpo?*

Anton.—*Ez naiz etxetik mugitu.*

Poliza.—*Bon, ontsa duk... sar-araz-zazu Margo.*

Margo.—*(Sartuz, asaldua) Hoo, Antton.*

Poliza.—*(Borthizki) Ixilik... Zuen arteko sentimenduak atxik-aizkitzue zuentzat. (Ez-tikiago) Mintzatuko zirezte bakarrik, galdeari errepusta emaiteko. Zuk, Margo, zure hitzak ontsa pisatuz emanen duzu errepusta: Mixel hil duten gauean, zonbat orenetan jin da Anton zure ganat?*

Margo.—*Gauerdi aintzinttoan.*

Poliza.—*Zonbat orenak artio?*

Margo.—*Oren bat artio.*

Poliza.—*(Antoni) Margok egia erraiten dia edo ez?*

Anton.—*(Aphur bat ixilik egonez, mintzo da hotzki Margori) Ez ginen hola hitzartuak.*

Margo.—*(Nigarrez hipaka) Ho, Antton... Nik uste nuen denak aithortuak zinituela...*

*Anton.*—Ez naiz etxetik mugitu.

*Polizia.*—Begira zak zer esaten dekan. Berriz ere, eta azkenengo aldiz, ematen diat egia aitortzeko aukera. Gau ura etxean pasatu al dek edo etxetik kanpo?

*Anton.*—Ez naiz etxetik mugitu.

*Polizia.*—Ederki, ongi dek. Sarrarazi zazu Margo.

*Margo.*—(*Sartuaz, asaldua*) Ooo, Anton.

*Polizia.*—(*Latz*) Ixilik. Zuen arteko sentimentuak gorde itzazute zuentzat. (*Leunago*) Itzegingo dezute bakarrik galderari erantzun emateko. Zuk, Margo, zure itzak ongi neurtuz emango dezu erantzuna: Mitxel il duten gauean, zer ordutan etorri da Anton zuregana?

*Margo.*—Gaberdia baño lentxeago.

*Polizia.*—Noiz arte egon zan?

*Margo.*—Ordubatak arte.

*Polizia.*—(*Antoni*) Margok egia esaten dik ala ez?

*Anton.*—(*Pixka bat ixilik egonez, otzki itzegiten dio Margori*) Ez giñan ola itzartuak.

*Margo.*—(*Negarrez zotinka*) O, Anton. Nik uste nuen danak aitortuak zenituela.

*Hortakotz aithortu ditut denak, nik ere... Denak, denak, aithortu ditut. (Memoria gal-  
tzen bezala du, kadíran jarriz)*

Poliza.—(J. Xefari) *Sar-araz-zazu ama... (Hau sartzen da) Othoi zure alabaz artha har zazu.*

Jana M.—(Samur) *Zer dire molde hauk? Ez zireztea ahalge haur gaixo hau hein huntan ezartzea?... Jakin ez duela gizonen aintzinean agertzeko usaiarik-eta, aski kopeta izan duzue hunarat bakarrik sar-arazteko? Eta oraino, kriminel tzar horren aintzinat...*

Poliza.—(Antoni) *Bon, ez dik balio en-  
goitik, ukha eta ukha, denborarik gal de-  
zakan. Aithor-tzak: Mixel hiltzeko gauean,  
Margoren arrapatzerat izan hiza, gauerdi  
aintzinttoan?*

Anton. — (Aphur baten buruan, boza ilhun): *Ba...*

Poliza.—*Hunen ganik, goizeko oren bate-  
an urrunda hiza?*

Anton.—(Lehen aldian bezala) *Ba...*

Poliza.—*Aintzinean ere, gisa berean egi-  
teko usai bahina?*

Anton.—(Bethi berdin) *Ba...*

Margo.—(Berebaitatua, nigarrez, errabi-

Orregatik nik ere danak aitortu ditut. Danak, danak aitortu ditut. (*Kordea galtzen bezela du, sillan jarriaz*)

*Polizia.*—(*Guardiari*) Sarrarazi zazu ama. (*Au sartzen da*) Faborez zaitu zazu alaba.

*Joana M.*—(*Aserre*) Zer da au? Ez al zerate lotsatzen aur gaixo au era ontan jartzen? Jakin ez duela gizonen aurrean agertzeko oiturarik eta nola sarrarazi dezute onera bakarrik? Eta gaiñera kriminal txar orren aurrera...

*Polizia.*—Ez dik balio emendik aurrera uka eta uka denborarik gal dezakan. Aitortu zak: Mitxel iltzeko gauean, Margogana joan izan al aiz, amabiak baiño lentxeago?

*Anton.*—(*Pixka bat ixilik egon ondoren, boz illun batekin*) Bai.

*Polizia.*—Onengandik goizeko ordu batean aldendu aiz?

*Anton.*—(*Len bezela*) Bai.

*Polizia.*—Leenago ere, berdin egiteko oitura uan?

*Anton.*—(*Beti berdin*) Bai.

*Margo.*—(*Bere senera etorria, negarrez, amorruez*) Polizia ustela!... Ustela!... Iñori

an) *Poliza ustela... ustela... Nehori phitsik ez zuela salatuko hitzemanan zautan... Eta nik oro aithortu horri... Ustela...*

Poliza.—(Borthizki Margori) *Zu ixilik, bi zaflako ez baitutzu gainerat nahi... Eta orai baitugu aski jakinik, sala hau huts... (J. Xefak hartzen du Anton... Margo bethi nigarrez eta “ustela” ari da)*

Jana M.—*Desohoria zu!... Familiako desohoria!... Zato hunarat, othoi. Izan zaizte ama on bat zuen haurrentzat... Horra ondolik ukanen duzuen satifamendua... Trixtia, zu... (Jalitzen dira)*

Poliza.—(J. Xefari, irri maltzur batekin) *Gure lana pixka bat argitu dugu neska xoro horri esker... Xoria orai erdi eskutan dugu... Luza gabe, nik uste, ahurrerat oso osoa bilduko dugu...*

(O I H A L A)

ez ziola ezer salatuko itz eman zidan. Eta nik dana aitortu orri... Ustela!...

*Polizia.*—(*Latz Margori*) Zu ixilik, bi belarrondoko ez badituzu artu nai. Eta orain badegu aski argitasun eta sala au ust. (*Guardiak artzen du Anton. Margo beti negarrez "Ustela!" esaten ari da*)

*Joana M.*—Lotsagabea! Etxeko galgarria! Zatoz onera! Izan zaitez ama on bat zure umeeekin. Eta ondotik emango dizute bai saria. Lotsagabea, zu! (*Irtetzen dira*)

*Polizia.*—(*Guardiari, irri maltzur batekin*) Gure lana pixka bat argitu degu neska txoro orri eskerrak. Orain txoria erdi eskuetan degu. Luzaro gabe, nik uste, gure mendean izango da.

O I A L A

## Hirugarren gertaldia

Joka-lekua. — Ostatu barne bat

(Ostalertsu zerbitzatzen ari. Hiru kantari, Katxin laugarren erakasle, ari dira Mixel zenaren kantuen emaiten.)

*Kantu berri kantatzen  
Orai naiz abian,  
Hasi nahia nintzen  
Gan den aspaldian,  
Orai arte begira  
Egon naiz lorian,  
Gaxtagiñak hartuko  
Tuztela agian.*

*Othoi egin zazue  
Zertaz diren kasu,  
Gauzak diren bezala  
Nai ditut aiphatu.  
Artzain bat bere bordan  
Baitute garbitu  
Etsaiaren indarra,  
Han da baliatu.*

## **Irugarren gertaldia**

**JOKA-LEKUA:** *Taberna barrunbea.*

*(Andre tabernaria serbitzen ari da. Iru kantari eta Katxin oien irakasle ari dira Mitxel zanaren bertsoak kantatzen.)*

Bertso berri kantatzen  
orain naiz abian,  
asi naia banuan  
juan den aspaldian,  
orain arte begira  
egon naiz glorian,  
gaizkillea atxituko  
dutela agian.

Entzun zazute, arren,  
zer zaigun gertatu,  
gauzak diran bezela  
nai ditut aipatu,  
artzai bat bere bordan  
baitute garbitu,  
etsaiaren indarra  
an da baliatu.



*Mitxel zuen izena,  
Deithura Larralde,  
Bakarrik bizi zena,  
Lagunikan gabe,  
Gauaz eta egunaz,  
Bethi larrez larre,  
Jan edan onik gabe  
Zabilan debalde.*

*Gau hartan auzoan zen  
Gaztain erre jaten  
Trixteak holakorik  
Ez zuen pentsatzen;  
Ber'ustez deskantsuan  
Arthalderrat gan zen,  
Kriminelak etxean  
Harmaturik zauden.*

(Laugarren pertsuan, Luix sartzen da. Elgarri keinu bat eginik, kantariak ixiltzen dira.)

Luix.—(Errabian) *Segitzen ahal duzue ba zuen kantua... Zertako ixildu zirezte?... Ala, zer nuzue?... Ni sobera hemen?*

Katxin.—(Eztiki) *Ez, Luix, ez zaitugu batere sobera... Bainan ez dautzugu penarik egin nahi.*

Luix.—(Bethi samur) *Penarik ez egin nahi?... Zuen moldeak zer uste duzue egi-*

Mitxel zuen izena,  
deitura Larralde,  
bakarrik bizi zana  
lagunikan gabe,  
gauaz eta egunaz  
beti larrez larre,  
jan edan onik gabe  
zebillen debalde.

Gau artan auzoan zan  
gaztain erre jaten,  
tristeak olakorik  
ez zuen pentsatzen,  
bere ustez deskantsuan  
artaldera juan zen,  
kriminalak etxean  
armaturik zeuden.

*(Laugarren bertsoan Luis sartzen da. Elkarri keiñu bat egiñik kantariak ixiltzen dira.)*

*Luis.*—(Amorruz) Zergatik ez dezute segitzen zuen kantua? Zergatik ixildu zerate? Ala zer? Nik traba egiten dizuet?

*Katxin.*—Ez, Luis, ez diguzu batere traba egiten. Baiña ez dizugu pena eman nai.

*Luis.*—(Aserre) Penarik ez eman nai. Zu-

*ten dautatela?... Atsegin behar bada?... Kriminelaren aita naizela pentsatzen baduzue, errazue garbiki.*

*Katxin.—Ez dut ene kantetan holakorik aiphu.*

*Luix.—Ez duzue beharbada holakorik aihortzen, bainan ez ukhatzen ere... Deus hobenik gabe, hemen naukazue denek sobraikin bat bezala. Ni hurbildu ordu, konpainia mutu, konpainia urrun... Atzoko hura bera nuk ni egun ere... Hiliki usteldu bat baninukek bezala, leku egiten duzue ni ganik... Ni ganik ihes, deus gaizkirik egin ez dudalarik, deusetan kondenatua izan gabe ere... Ene etxea fama tzar batez ilhundua, zikindua, ehoa delakotz, fama hartarik nauzue jujatzen... Ez gertaturik bainan erran-merran huts batzuen gainetik... Ez zirezte gizonak! (Edan eta brau jakitzen da)*

*Katxin.—Hum... Minbera, gizona... Eta minbera denak atx egiten... Ha, zertan ginuen ba gure kantua?... Ha ba... Huna segida.*

*(Kantua segitzen dute...)*

en jokabideak zer uste dezute egiten dida-  
tela? Atsegin, bearbada? Kriminalaren aita  
naizela pentsatzen badezute, esan garbi.

*Katxin.*—Nere bertsoetan ez det olakorik  
aipatu.

*Luis.*—Ez dezute bearbada olakorik aipa-  
tzen, baiña ez ukatu ere. Batere kulparik  
gabe, emen naukazute danak enbarazu egin-  
go banu bezela. Ni sartu orduko, kuadrilla  
guztia mutu, danak iges. Atzoko ura bera  
nauk ni gaur ere. Gorputz il usteldu bat bani-  
kek bezela, iges egiten dezute nigandik. Ni-  
gandik iges, eta ori ezer txarrik egin gabe  
eta ezertan kondenatua izan gabe. Nere  
etxea fama txar batek illundu ta zikindu  
duelako, fama ortatik juzgatzen nazute. Ez  
zerate gizonak. (*Edan eta brau irtetzen da*)

*Katxin.*—Hum... Minbera, gizona. Eta  
minbera danak "ai!" egiten du... Zertan ge-  
nuen gure kantua? A, bai... Ona emen se-  
gira.

(*Kantuari jarraitzen diote.*)

*Arthaldea bildurik  
Bera ethorria,  
Egintxe zuelarik  
Bere afaria,  
Sukaldean lo zagon  
Kadiran jarria,  
Bainan hurbil bazagon  
Norbait atzarria.*

*Zango puntetan zaizko  
Etorri biphilik,  
Aizkora eskuetan  
Ixil gibeletik;  
Hiru kolpez segidan  
Buru arraildurik,  
Han bertan utzi dute  
Bizia kendurik.*

*Hiltzea ez zen aski  
Nahi zuten erre  
Lastoz eta petrolez  
Entseatu dire;  
Ez zuten utzi nahi  
Trazarikan ere  
Afera ongi zuten  
Baliatu balire.*

Artaldea bildurik  
bera etorria,  
eginda zuelarik  
bere aparria,  
sukaldean lo zegon  
aulkian jarria,  
baiña gertun bazegon  
norbait atzarria.

Anka-puntetan ernai  
zana etorririk,  
aizkora eskuetan,  
atzetik ixilik,  
iru kolpez segidan  
burua ausirik,  
an bertan utzi dute  
bizia kendurik.

Iltzea ez zen aski,  
bear zuten erre,  
lastoz ta petroleoz  
alegindu dire,  
ez zuten, ez, utzi nai  
trazarikan ere,  
ondo zijoan gauza  
baliatu balire.

*Justizia izan da  
Jina Baionatik,  
Jendarmeria eta  
Jaun mera herritik.  
Gibelerat itzuli,  
Bihotza trixterik,  
Ez baitute atzeman  
Nehor hiltzailerik.*

(Hurrengo pertsuan sartzen da Ganix.  
Kantariak elgarri keinu bat egiten dute han  
dela, bainan gelditu gabe...)

*Senperen gertatzeko  
Oi krima trixtea,  
Sortuz geroz zor dugu  
Guziek hiltzea;  
Bainan ez zauku aizu  
Odol ixurtzea  
Horrek ekhartzen baitu  
Denentzat kaltea.*

(Pertsu hau eman-eta, agertzen da Tar-  
talet...)

Denek.—*To, Tartalet... Haugi hunarat...  
Jar-adi hemen. Zerbitzaria, baso bat gehia-  
go. Ale, kanta zak gurekin... (Tartaletekin  
emaiten dute hamargarren pertsua, Ganixe-  
ri buruz bezala)*

Justizia eldu da  
Baiona aldetik,  
jendarmeria eta  
alkatea erritik,  
itzuli dira atzera  
biotza tristerik,  
ez baitute atzeman  
iñor iltzallerik.

*(Urrengo bertsoan sartzen da Ganix. Kantariak elkarri keiñu egiten diote, baiña gelditu gabe.)*

Senperen gertatzeko  
oi gauza tristea,  
sortu ezkeror zor degu  
guziek iltzea,  
baiñan ez zaigu libre  
odol ixurtzea,  
orrek ekartzen baitu  
denentzat kaltea.

*(Bertso au kantatu ondoan, agertzen da Tartalet.)*

*Danak.*—I, Tartalet,... Ator onera. Jarri adi emen. Serbitzaria, baso bat geiago. Ala, kanta zak gurekin. *(Tartaletekin kantatzen dute amargarren bertsoa, Ganix-eri begira bezela)*



*Nor nahi izan dadien  
 Horren egilea,  
 Galdu du sekulakoz  
 Barneko bakea;  
 Ez dauka pagaturik  
 Egin duen kaltea,  
 Irrizkatzen ere du  
 Lephoa moztea.*

*Tart.—Pertsu hori ontsa emanak duk gero... Jaun Misionestak, gauza bera erran dik prediku alkitik.*

*Katxin.—To, hik biziki ontsa ikasia omen duk Jaun Misionestak krimaz eman predikua... Ale, behar daukuk prediku hori egin.*

*Tart.—Emanen diat, bainan zuek ixilik egotekotan, elizan bezala.*

*Denek.—Ba, muthikoa ba... To, haugi hunarat... Upha-adi mahainaren gainerat... Ale, xo... Lot adi...*

---

Pertsu zahar hauen hamekagarren eta azken pertsua:

Nehor gertatzen bada  
 Ene beharretan,  
 Zerbitzatuko ditut  
 Denak lorietan;  
 Onestasuna zainduz  
 Bertsu berrietan,  
 Denek kanta ditzaten  
 Eskual-Herrietan.

Nornai izanda ere  
orren egillea,  
galdu du sekulako  
barrengo pakea,  
ez dauka pagaturik  
egin dun kaltea,  
arriskuan ere du  
lepo-moztutzea.

*Tartal.*—Ondo jarria dek bertso ori. Aita  
Mixiolariak gauza bera esan dik kulpitutik.

*Katxin.*—Aizak, ik oso ondo ikasi omen  
dek mixiolariak egin duen sermoia. Ea, ser-  
moi ori egin bear diguk.

*Tartal.*—Egingo diat, baiña zuek ixilik  
egotekotan, elizan bezela.

*Danak.*—Bai, motell, bai. Ator onera. Igo  
adi mai gaiñera. Ale, asi.

---

Bertso zar auen amaikagarren eta azken ber-  
tsoa:

Iñor gertatzen bada  
Nere bearretan,  
Denak serbituko'itut  
Pozik ta benetan,  
Gizatasuna zainduz  
Bertso berrietan,  
Denek kanta ditzaten  
Eskual errietan.

Tart. — (Hazparneko misionest ezagutu zombait imitatuz, emaiten du predikua)

*Krima... Krima izigarri baten xehetasun hitsak hedatu dira Eskual-Herriaren hegal urrunetaraino, gure arrazaren omen ona histen dutela, jende xehen bihotzak lazten, gure arteko goxotasuna ilhuntzen eta nahasteten... Krimaren tokia: Senpere... Krimaren ondorioa: Artzain gaixo bat, gorphutz... Krimaren egilea: Nehork ez jakin nor den... Makhur mintzo naiz... Ba, bada, norbeit oro baitazki... Bada norbait, norentzat barneak kanpo, eta ilhuna egun argi, baitira, Norbait hura: Gure Jainkoa... Norbait haren gaztigua, ez da mentura, bainan segura. Eta gure artean balinbada delako kriminela, ez dezake ukha nik errana... Adizak, kriminel trixtea... Bulharrari jo eta jo ari zaukan danga hori, Jainkoaren boza duk... Nahi hukek pausatu, lo egin, ahantzi... ez... danga, danga... Jainkoaren bozak ez dik pausarik emaiten... Nahi hukek alegeratu, goxatu, bakea jastatu... danga, danga... Jainkoaren bozak ez dik deskantsurik uzten... danga, danga... Soinu bera entzunen duk ase artio, nahasi artio, erhotu artio... danga. danga...*

Ganix.—(Orhoaz) *Bakia, bakia eta ba-*

*Tartal.*—(*Aita mixiolari ezagun batzuei imitatuaz, egiten du sermoia*) Krimen bat... Krimen beltz baten zertzeladak zabaldu dira Euskalerriko azken bazterretaraiño, gure erriaren izen ona zikinduz. Krimen tokia: Senpere. Ondorea: artzai gizajo bat, illa. Egillea: iñork ere ez daki. Gaizki esan det. Bai, bada norbait dana dakiana... Arentzat barrenak kanpo, eta illuna egun argi baitira. Norbait ori, gure Jainkoa da... Eta norbait orren kastigua gauza seguru da. Gure artean baldin bada kriminal ori, ez dezake uka ni esandakoa. Adi zak, kriminal tristea! Bularrari jo ta jo ari zaikan danga ori, Jainkoaren boza dek... Nai ukek atsedean artu, lo egin, aaztu,... ez... danga! danga!... Jainkoaren bozak ez dik pakerik ematen... Nai ukek poztu, goxatu, lasaitu,... danga! danga!... Soñu bera adituko dek ase arte, naastu arte, zoratu arte... danga! danga!...

*Ganix.*—(*Deadarrez*) Ixildu zaitezte nozbait. Leporaiño badiat zuen danga eta danga zikiñarekin.

*kia... Lephoraino badiat zuen danga etu danga zikinarekin.*

*Katxin.—Yes... Bainan, gizona, zer duzu?... Ez gira zutaz ari... Ahusatzen ari gira.*

*Ganix.—Ahusamendu latza... akitgarria... errespeturik gabea...*

*Tart.—(Sekulako elhasturian) Ez gira zutaz ari, gu... danga, danga... Kriminelari nola joiten dion kontzientziak, erraiten dut nik... Ba, danga, danga... Merezi ahal du, alabainan, hola gizona hil eta errez geroz.*

*Ganix.—(Brau jalitzen da, esker tzar batean)*

*Tart.—(Ondotik jarraitzen zaiola) Holakori ez laitake aski lephoa moztea. Behar liezke, lephoa moztu aintzin, ontsa sofriarazi. Eta hola ez laitake gehiago buhamerik... danga, danga, phits ez duk alabainan buhamentzat.*

( O I H A L A )

*Katxin.*—Baiña, gizona, zer dezu? Ez gera zutaz ari. Jolasean ari gera.

*Ganix.*—Jolas beltza... aspergarria... errespetorik gabea.

*Tartal.*—(*Berriketa bizian*) Ez gera zutaz ari, gu... danga! danga!... Kriminalari konzientziak nola jotzen dion esaten ari naiz ni. Bai, danga! danga!... eta ondo merezia du, ola gizona il eta erre ondoren.

*Ganix.*—(*Brau irtetzen da, purrustada batean*)

*Tartal.*—(*Ondotik segitzen diola*) Alakoa-ri ez litzake aski lepoa moztea. Bear litzake, lepoa moztu aurretik, ondo sufritu-arazi. Eta ola ez litzake geiago ijitorik... Izan ere, danga danga ijitoentzat ez da ezer.

## O I A L A

## Laugarren gertaldia

Joka lekua: Edozoin sala.

(Margo eta hunen ama, tortxa batekin, mantalinak eskuetan, sakramenduen beha daude)

Jana M.—*Zuk, Margo, apheza segituko duzu aitaren ganberalat... Nik askaria pre-paratuko diot.*

Margo.—*Heldu dira.* (Mantalinetan, tortxa piztua, belhaunikatzen dira. Apheza sartzen da bereterrarekin aitaren ganberan)

Jana M.—(Bakarrik, mahaina ematen da eta askaria zerbitzitzen. Agertzen dira Erretora eta beretterra)

Erret.—*Agur, Jana Mari. Nola pasatu du gaua Ganixek?*

Jana M.—*Beheiti ari da. Gau guzia amets nahasitan iragana du. Poliza eta Antton. Antton eta Poliza, ez zuen bertze aiphamenik. Hek baitezpada ikusi nahi zituen.*

Erret.—*Heien galdea egina daut eni ere,*

## Laugarren gertaldia

JOKA-LEKUA: *Edozein gela.*

*(Margo eta onen ama, kandela batekin, manteliñak eskuetan, elizakoen zai daude.)*

Joana M.—Zuk, Margo, apaizari lagunduko diozu aitaren gelara. Nik bitartean mokau bat prestatuko diot.

Margo.—Badatoz. *(Manteliñak jantzi, kandelak piztu eta belaunikatzen dira. Apaiza sartzen da eliz-mutillarekin aitaren gelara)*

Joana M.—*(Bakarrik, maia jarri eta mokaua serbitzen du. Agertzen dira erretorea eta eliz-mutilla)*

Erret.—Ola, Joana Mari, nola pasatu du gaua Ganixek?

Joana M.—Beerantza dijoa. Gau guztia amets naasitan igaro du. Polizia eta Anton, Anton eta polizia, besterik ez zuen aipatzen. Oiek nai ta nai-ez ikusi nai zituen.

Erret.—Neri ere oiekgatik egin dit gal-



atzo, kofesatzean. Polizari parte emana diot erakusten duen desiraz.

Jana M.—*Ez ahal da poliza hunarako?*

Erret.—*Hala balitz, onhartu beharko.*

Jana M.—(Bereterrari) *Zuk, Manex, sukaldean askalduko duzu. Hor dut ezarria zure askaria prest. (Manex jalitzen da) Jarzaita, jaun Erretora... Uste duzia funtsez ari den poliza eta Anton galdezka?*

Erret.—*Nork daki?*

Jana M.—*Izigarri da ba zerk jo gituen... Urtu da, urtu, ene senharra, zombait egun hautan... Iduri luke norbaitek horrentzat eihar meza bat eman duela.*

Erret.—*Hobe luke eihar meza bat balu jasaiteko, duen eritasuna baino.*

Jana M.—*Mihikuak deus ez du konprenitu horren gaitzari. Izpiritua duela eri, dio, gorphutza baino gehiago.*

Erret.—*Gertatzen dena da... Izpirituko arrangurek gorphutza eritzen ahal dute, gorphutzekoek izpiritua bezenbat. (Athea joiten dute)*

Jana M.—*Aintzina.*

Poliza.—*Agur, jaun Erretora, agur, anderea.*

dera atzo konfesatzean. Poliziari parte eman diot, berak ala nai duen ezkerro.

*Joana M.*—Poliziak onera etorri bear al du?

*Erret.*—Ala balitz, artu bearko.

*Joana M.*—(*Eliz-mutillari*) Zuk, Manex, sukaldean artuko dezu mokaua. Or dago zurretzat jarrita. (*Manex ateratzen da*) Jarri bedi, erretore jauna. Uste al du berorrek benetan deitzen diola poliziari eta Antoni?

*Erret.*—Zeiñek daki ori?

*Joana M.*—Izugarria da ba guri gertatu zaiguna. Urtu da, urtu, nere senarra, azken egun auetan. Norbaitek orrentzat lapur-meza bat atera duela esango nuke.

*Erret.*—Obe litzake lapur-meza bat beste gaitzik ezpalu.

*Joana M.*—Medikuak ez du tutik konprenditzen orren gaitza. Anima, espiritua duela gaixo, dio, gorputza baiño geiago.

*Erret.*—Baliteke. Animako kezkek gorputza gaixotu dezakete, eta bai gorputzekoak anima ere. (*Atea jotzen dute*)

*Joana M.*—Aurrera.

*Polizia.*—Egun on, erretore jauna. Egun on, andrea.

Jana M.—(Harritua) *Zu?... Zu hemen?...*

Poliza.—*Ez nia jaun Erretorak deithu?*

Erret.—*Ba, hala da... Eriak hanbeste galdatzen baitu zu ikhustea, nahi izan diot satifamendu hori eman... Hortakotz igorri dautzut jin zaiten galdea.*

Poliza.—*Zer nahi du ni ganik?*

Erret.—*Hori bere sekretua du... Bera mintzatuko duzu... Arras gaizki da, bainan adimenduz xorrotx eta zuzen.*

Poliza.—*Nun da eria?*

Jana M.—*Zato enekin, jauna. (J. Mari eta Margo agertzen dira) Poliza nahi du eriak buruz buru mintzatu... Bi emazteak kanporat despeitu gaitu... Othoi, Margo, zoazi sukalderat... Ez duzia uste, jaun Erretora, gure alabaren egitatea dela horren eritasunaren arrazoin larriena? Horrek, horrek... Desohoratu eta hil behar ginituen azkenean... Ez ginuen holakorik mezezi, horren ganik bereziki.*

Erret.—*Iragan denbora ez da gehiago gure... Heldu dena, ba... Eroritik altxatu da... Jaunari milesker erran dezogun altxatu delakotz eta ixil utz dezagun erori delakoa.*

Jana M.—*Hortaraino erortzea...*

*Joana M.*—(*Arritua*) Zu? Zu emen?

*Polizia.*—Ez al nau erretore jaunak deitu?

*Erret.*—Bai, ala da. Gaixoak arren da arren zu ikustea eskatzen du, ta bere nai ori egitearren deitu zaitut.

*Polizia.*—Zer nai du nigandik?

*Erret.*—Ori berak jakingo du. Berak itz-egingo dizu. Oso gaizki dago, baiña ezague-  
ra argi eta zoli dauka.

*Polizia.*—Nun dago gaixoa?

*Joana M.*—Zatoz nerekin, jauna. (*Joana Mari eta Margo agertzen dira*) Gaixoak nai du poliziarekin bakarrean itzegin. Bi emakumeak kanpora bialdu gaitu. Faborez zu, Margo, zoaz sukaldera. Erretore jauna, ez al du uste berorrek gure alabaren itsuske-  
ria izan dala orren gaitzaren arrazoi guztia? Orrek, orrek... Beztu eta il bear gaitu azke-  
nean. Ez genduen olakorik merezi orren-  
gandik.

*Erret.*—Igarotako denbora ez da geiago gurea. Oraingoa, bai. Erori bada, eroritik altxatu da. Eman dezaizkiogu eskerrak Jau-nari altxatu dalako eta ixillik utzi dezagun erori dalakoa.

*Joana M.*—Ortaraiño erortzea ere!

Erret.—*Bada bekatu handiagorik bazterretan... Beira gaiten, guhaur hortarat ez gintazkelako urgulutik.*

Jana M.—*Gaixo gizona... Arrunt bertzelakatu da azken gertakari hauien ondotik... Horiek daramate obirat.*

Erret.—*Jainkoak daki bakarrik xuxen horren gora-beheren berri.*

Poliza.—*(Agertzen da)*

Jana M.—*Eta?... Ezagutu zitia?... Zer nahi zuen?...*

Poliza.—*Memorio osoan da... Nahi nuke aphur bat bakarrik egon jaun Erretorarekin... Hemen berean egoiten ahal girea?*

Jana M.—*Ba, ba, deskantsuan. Sala hau zuen gomendio da. (Jalitzen da)*

Poliza.—*(Erretorari) Errak, bahakik, dudarik gabe zer nahi zian ene ganik. Beraz hori zuian hiltzalea... Eta gure zalaparta guziak, hobenik ez zuen baten kontra ibili ditiagu... (Bizi bizia) Hik bahakien, eta aspalditik bahakien, hori zela hobenduna... Zertako ez duk phitsik salatu?*

Erret.—*Nazkienak ez nitian salatzeko.*

Poliza.—*Ba, hik kontseilaturik, dik omen, bere burua ez ekharri hobendun, orai artio.*

*Erret.*—Bada pekatu aundiagorik bazterretan. Kontu gero arrokeriz gerok ere ortaratu ez gaitezen.

*Joana M.*—Gaixoa! Erabat dago bestelakotua azken gertaera auen ondotik. Oiek daramate illobira.

*Erret.*—Jainkoak bakarrik daki orren barruko goraberen herri.

*Polizia.*—(Agertzen da)

*Joana M.*—Eta? Ezagutu al zaitu? Zer nai zuen?

*Polizia.*—Ezaguera osoan dago. Nai nuke pixka bat bakarrik egon erretore jaunarekin. Ementxe bertan egon al gindezke?

*Joana M.*—Bai, bai, egon lasai. Sala auzuentzat da. (Irtetzen da)

*Polizia.*—(Erretoreari) Ai zak, ik bada-kik, dudarik gabe, zer nai zian nigandik. Beraz ori zian iltzaillea. Eta gure zalaparta guztiak, errurik ez zuen baten kontra izan dizkiagu. (Bizi-bizi) Ik baekian, eta aspal-ditik jakin ere, ori zala erruduna. Zergatik ez dek ezer salatu?

*Erret.*—Nekizkianak ez nizkian salatzeke.

*Polizia.*—Ba ik esanda egon omen dek ori orain arte salatu gabe.

Erret.—*Nik ez diat phits erraitekorik.*

Poliza.—*Sekretua, ez dena salaturik ere, hitz bat bederen erraiten ahal daitakean ba: Bertze biderik har nezadan, edo... holako.*

Erret.—*(Bizi bizia) Gure sekretua, sekretu duk burutik buru... Eta, ez zukek sekretu horri kantailarik ere ken, deus arrazoinez.*

Poliza.—*Sekretua hein bat on duk... Bainan holako makhurak ekhartzen dituelarik, ez duk sekretua agertzea bekatu, bainan haren gordetzea.*

Erret.—*Gure sekretuaren gordeak, agerak baino hobeki zerbitzatzen dik ongia. Tapa ditzan on edo gaxtoak, hobe duk gure sekretua, sekretu egon dadien.*

Poliza.—*(Eztituz) Bon... Ontsa duk. . Anartean, hobendun ez zenak pairatu izan dik...*

Erret.—*Zuentzat hori erakaspén izan da diela... Zuen lana egin-azue zintzoki eta humilki, eta, ez gaztigurik eman akusatuari, bainan hobendunari bakarrik.*

Poliza.—*Ahal duguna egiten diuk guk ere.*

Erret.—*Orai baitakik nor den hobenduna, zer xede dituk horri buruz?*

*Erret.*—Nik ez diat ezer esatekorik.

*Polizia.*—Sekretua, dana salatu gabe ere, itz bat beintzat esan ezaken ba: beste bide bat artu nezan edo... olako.

*Erret.*—(Bizi-bizi) Gure sekretua, sekretua dek burutik buru. Eta iñungo arrazoiez ezin genezaiaken sekretu orri izpirik ere kendu.

*Polizia.*—Sekretua bere neurrian ona dek. Baiña olako makurrak ekartzen dituanean, sekretua agertzea ez, baiña gordetzea dek pekatu.

*Erret.*—Guk sekretua gordetzearekin, agertzearekin baiño mesede geiago egiten diagu. Naiz onak naiz gaiztoak tapatu, obe dek gure sekretua sekretu egon dedin.

*Polizia.*—(Bigunago) Ongi dek. Eta bitartean kulparik ez zuenak pagatu izan dik.

*Erret.*—Ori izan dedilla erakuspen bat zuentzat. Zuen lana egin zazute zintzoki eta umilki. Ez eman kastigurik akusatuari, errudun dan ala ez eztakizuten bitartean.

*Polizia.*—Al deguna egiten diagu guk ere.

*Erret.*—Orain badakik zein dan erruduna, eta zer egin bear dek orrekin?



Poliza.—*Hiltzen ari den bati, nola nahi duk jazar gaiten?*

Erret.—*Aski punitua duk hol'hola. Ez zian horrek polizaren beharrik... Kontzientzia aski zian gaztigulari.*

Poliza.—*Orai, Anton nahi dik ikusi... Anton eta Anton, hari barkamendu galdatzeko.*

Erret.—*Hor duka Anton?*

Poliza.—*Ba... Hik erran bezala, enekin ekharri diat. Hor duk kanpo alde hortan. jendarma xefaren gomendio.*

Erret.—*Hobe duk berehala eriarekin buruz buru ezartzea... Horren hatsa labur baituk.*

Poliza.—*Bon, baniok bilarat.*

Erret.—*(Aphur bat bakarrik)*

Jana M.—*(Agertuz) Joan dea Poliza?*

Erret.—*Bai, bainan berritz itzultzeko bertze norbaitekin.*

Jana M.—*Berritz itzultzeko?... Norekin?...*

Erret.—*(Bat ere ez errepustarik)*

Jana M.—*Bainan zer du gero ene senharak? Horrek ba bide du zerbait makhur handi, hil aintzin zuzendu nahi lukenik!*

Erret.—*(Bat ere ez errepustarik)*

*Polizia.*—Iltzen ari dan batekin, zer egingo diagu ba?

*Erret.*—Badik orrek naiko kastigu. Ez zian orrek poliziaren bearrik. Konzientziaren zigorra izan dek orren polizia.

*Polizia.*—Orain Anton ikusi nai dik. Anton eta Anton, ari barkazioa eskatzeko.

*Erret.*—Or al dek Anton?

*Polizia.*—Bai. Ik esan bezela, nerekin ekarri diat. Or kanpoan dek, gardien ardurapean.

*Erret.*—Obe dek lenbailen gaixoaren aurrera eramatea, ori ezpaitziok luzaroko.

*Polizia.*—Bai, bania ekartzera.

*Erret.*—(Pixka bat bakarrik)

*Joana M.*—(Agertuz) Joan al da polizia?

*Erret.*—Bai, baiña berriz itzultzeko beste norbaitekin.

*Joana M.*—Berriz itzultzeko? Norekin?

*Erret.*—(Ez dio tutik erantzuten)

*Joana M.*—Baiña zer du nere senarrak? Orrek badu zerbait makur aundi, il aurretik zuzendu nai lukenik.

*Erret.*—(Ez dio erantzunik ematen)

Jana M.—*Zuk ez dakizia deus ere, jaun Erretora?*

Erret.—*Nork daki zer pasatzen den horren baitan!*

Jana M.—*Enekin ez du ahorik ere idekitzen. Zuri emaiten dautzia solas?*

Erret.—*Ba, frango polliki... Bon, berritz ere eriazen ondorat noha ixtaño bat.*

Jana M.—*(Bakarrik aphur bat... Bere lanetan ari, arrunt zainetatua, athea jotzen dute) Aintzina...*

Luix.—*(Herabeki) Agur, Jana-Mari.*

Jana M.—*(Hotz hotza) Agur, Luix.*

Luix.—*Nola zirezte?*

Jana M.—*Oren latzak hurbil.*

Luix.—*Auzo gisa heldu nintzan. Ene beharra baduzuela beharbada kabalen lanetako.*

Jana M. — *Baditugu adixkideak laguntzeko.*

Luix. — *Badira mementoak, Jana-Mari, eginbideari behatu behar baita, aiherkondeak beregisa utziz.*

Jana M.—*Badira ere mementoak, hobe baitira zauri batzu ez kitzikatu.*

*Joana M.*—Berorrek ez al daki ezer, erre-  
tore jauna?

*Erret.*—Nork daki zer pasatzen dan orren  
barruan!

*Joana M.*—Nerekin ez du aorik zabaltzen  
ere. Berorri ematen al dio itza?

*Erret.*—Bai, franko poliki. Banoa pixka  
batean gaixoarengana berriz ere.

*Joana M.*—Pixka batean bakarrik... (*Be-  
re lanetan ari da, oso urduri. Atea jotzen  
dute*) Aurrera!

*Luis.*—(*Bildurti*) Egun on, Joana Mari.

*Joana Mari.*—(*Otz-otzik*) Egun on, Luis.

*Luis.*—Nola zerate?

*Joana Mari.*—Ordu latzak gaiñean.

*Luis.*—Auzokoa naizen ezkerro etorri naiz.  
Ganadua gobernatzeko bear bada nere bea-  
rra izango dezutela ta.

*Joana M.*—Baditugu adiskideak lagun-  
tzeko.

*Luis.*—Joana Mari, bizitzan badira ordu  
batzuk, gorrotoa alde batera utzi ta bakoi-  
tzak bere betebearrak betetzeko diranak.

*Joana Mari.*—Baita ere badira orduak,  
zauri batzuk sumintzera ez etortzeko dira-  
nak.

Luix.—*Ez naiz zauri kitzikatzerat jina, bainan tratatzerat.*

Jana M.—*Peraxatzeko lanik ez zinuen izanen, ez bazinu urhatu.*

Luix.—*Ez dut nik deus urhatu.*

Jana M.—*Bai ordian zure semeak, eta errana den bezala: martxukaren aita, laharrara.*

Luix.—*Ene semea ez da, oraino segurik, hobendun jujatua.*

Jana M.—*Bat hil zuen... Bertzeari heriotzea igorri dio. Ez zautzia aski haren kondentatzeko?*

Luix.—*Mihi eztenak, nor ez du kondentzen?*

Jana M.—*Ene familia hola funditu duen semearen aitak, utziko ahal gaitu bakean, bederen bizirik girenak.*

Luix.—*Ez naiz kriminel baten aita, oraino segurik.*

Jana M.—*Konprenituko ahal duzu zuen eta gure ontasunen arteko atekak bethikotz hetsiak direla.*

Luix.—*Zure gatik dira hetsiak izanen, hola behar badute.*

Erret.—*(Agertuz, eztiki) Othoi, emekixa-*

*Luis.*—Ez naiz etorri zauria sumintzera, tratatzera baizik.

*Joana M.*—Adabakia jarri bearrik ez zenuen izango, ez bazenu urratu.

*Luis.*—Nik ez det ezer urratu.

*Joana M.*—Bai ordea zure semeak, eta esaera dan bezela: Masustaren aita, larra.

*Luis.*—Nere semea ez da oraindik errudun epaitua.

*Joana M.*—Bat il zuen. Besteari eriotza bialdu dio. Ez al da aski ura kondenatzeko?

*Luis.*—Mingain-eztenak nor ez du kondenatzen?

*Joana M.*—Nere familia ola ondatu duen semearen aitak, utziko al gaitu pakean, bizi geranok bederen!

*Luis.*—Ez naiz kriminal baten aita, oraindik beintzat.

*Joana M.*—Jakin bear dezu atear betiko gelditu dirala itxiak zuen eta gure artean.

*Luis.*—Itxiak bear badute egon, zugatik egongo dira.

*Erret.*—(Agertuz, bigun) Faborez, ixiltxorik itzegin. Izan dezagun ordu aundien errespetua. (*Luis irtetzen da, itzik esan gabe*)

*go emazue barne huntan... Izan dezagun oren handien errespetua. (Luix jalitzen da, hitzik erran gabe)*

Jana M.—(Jaun Erretorari) *Zer kopeta! Ez zaio aski gu estatu huntan ezartzea. Bere bisaia oraino hemen nahi du erakutsi.*

Erret.—*Zer nahi zuen?*

Jana M.—*Gure penetan, zer begitarte dugun ikusi; horra zer nahi zuen... Berak muntatu krima saltsatik jastatu.*

Erret.—*Othoi, Jana Mari, ez zazula hoin aise kriminela dei, oraino kondenatua ere ez den gizona.*

Jana M.—*Ez ahal duzu, jaun erretora, urrikariko, bere auzoa hil eta erre duen gizona! Guhaur errekatu gaituen gizona! Ez zaut iduritzen holako batentzat behar laitaken pietaterik.*

Erret.—(Fermuki) *Othoi, Jana Mari, zaudex ilik. Ez dakizu zer derasazun. Eta orhoit zaite zure senharraz.*

Jana M.—(Erdi nigarrez) *Ba, ba, gaixo gizona. Uli bati berari ez baitzion minik egiten... Ez du jasan ahal izan krima horrek bihotzean eman dion ukhaldia... (Athea jo eta idekitzen dute... Hor dira: Poliza, Jendarma Xefa eta Anton)*

Jana M.—(Arras asaldatua) *Zer... krimi-*

*Joana M.*—(*Erretore jaunari*). Zer lotsa-gabekeria! Ez zaio aski gu egoera ontan jartztea. Bere muturra ere emen agertu bear du.

*Erret.*—Zer nai zuen?

*Joana M.*—Zer naiko zuen? Gure penetan zer arpegi degun ikusi. Berak jarri duen krimen-saltsatik probatu.

*Erret.*—Otoi, Joana Mari, ez zazula ain errez kriminal deitu, oraindik kondenatua ere ez dan gizona.

*Joana M.*—Bere lagun urkoa il eta erre duen gizona, ez du berorrek errukarri izango, erretore jauna. Gu gerok ondatu gaituen gizona. Ez zait iruditzen olakorentzat kupirarik izan bear litekenik.

*Erret.*—(*Gogor*) Otoi, Joana Mari, zaude ixillik. Ez dakizu zer esaten dezun. Eta oroi-tu zaitetz zure senarraz.

*Joana M.*—(*Erdi negarrez*) Bai, bai, errukarria! Euli bati miñik egingo ez zion gizona! Krimen orrek biotzean egin dion zartada, ezin eraman izan du.

(*Atea jo eta idikitzen dute. Agertzen dira: Polizia, Guardia eta Anton.*)

*Joana M.*—(*Arras asaldatua*) Zer? Kriminala? Orain berriz kriminala nere etxean?



*nela?... Orai berritz kriminela ene etxean. (Ukhailoa eginez Antoni) Hi, hi... Gizon hiltzale zikina!... Hire gatik gaituk denak errekan.*

Poliza.—(J. Mariri fermuki) *Zu ixilik... Goazen ganberalat (Jalitzen dira)*

Jana M.—(Erretorari) *Bainan, jaun Erretora, erranen dautazuia, zer duen ene senharrak holako afera poliza horrekin?*

Erret.—*Hori berek dakite.*

Jana M.—*Hala, ene senharrak gorde dautu zerbait? Gau hartan bazina zerbait ikusi edo entzunik?*

Erret.—*Ditakena da.*

Jana M.—*Zer zuen?... Anton ikusia berderen, eta ez salatua?*

Erret.—*Beharbada.*

Jana M.—*Ez naiz estonatzten, hori den zuzenarekin, nahi izan baitu kontzientzia arindu hil aintzin... (Aphur bat ixilik... Erretora harat eta hunarat dabil. Hiru gizonak agertzen dira)*

Erret.—*Egin duzia zuen lana?*

Poliza.—*Ba... Paperean izkirioz emaita aski.*

Erret.—*Bon, eriaeren ondorat noha. (Anton jartzen da nigarrez. Jendarma Xefa xutik dago ixilik... Poliza izkiriitzen mahain hegian)*

(*Ukabilla erakutsiz Antoni*) I, i, gizon iltzaille zikiña. Iregatik gaituk danak errekan.

*Polizia.*—(*Joana Mariri gogor*) Zu ixillik. Goazen gelara. (*Irtetzen dira*)

*Joana M.*—Baiña, jauna, esango al dit zer duen nere senarrak polizia orrekin?

*Erret.*—Ori berak jakingo dute.

*Joana M.*—Edo nere senarrak zerbait gorde ote dit? Gau artan zerbait ikusi edo entzun ote zuen?

*Erret.*—Baliteke.

*Joana M.*—Bearbada Anton ikusiko zuen, eta ez salatu?

*Erret.*—Bearbada.

*Joana M.*—Ez naiz arritzen. Ori ain da zuzena! Naiko zuen konzientzia arindu il aurretik. (*Pixka batean ixillik. Erretorea arata onera dabil. Iru gizonak agertzen dira*)

*Erret.*—Egin al dezute zuen lana?

*Polizia.*—Bai. Orain paperean bear da idatzi.

*Erret.*—Ederki; ni banao gaixoaren ondora.

(*Anton negarrez asten da. Guardia zutik dago ixillik. Polizia idazten mai bazterrean*)

Jana M.—(Antoni) *Nigar egiten duka, nigar! Ez duk orai tenora! Lehenago zuian gogoetan egiteko tenora! Aski nigar guhaurri egin-arazi daukuk... Zuzen duk noizbait ihaurrek egin dezakan.*

Poliza.—(Bizi bizi) *Othoi zaude ixilik... Utz nezazu izkiriaterat. (Aphur bat ixilik)*

Erret.—(Agertuz) *Jana Mari, eriak Margorekin bere ondorat deitzen zitu... Behar omen dautzuate zerbait serio buruz buru erran.*

Jana M.—*Zer nahi du?*

Erret.—*Ez dakit.*

Jana M.—*Ontsa da. (Sukaldeko athea idekiz, Margo deitzen du) Zato Margo... Aitak nahi omen gaitu mintzatu. (Biak jalitzen dira)*

Erret.—*Bere egitatea salatuko diote... Ez du arrangura horrekin hil nahi... Barkamendu galdetuko diote bieri eta, ahalaz, haren krima errepara dezaten... (Denak ixilik dagotzi. Aphur baten buruan, marrumaz agertzen dire ama-alabak, eta phitsik erran gabe, jalitzen sukaldeko athetik)*

Poliza.—*Bon, paper-hau eriarri sinarazita, gure lana bururatua izanen da... (J. Xefari) Zato enekin.*

*Joana M.*—(*Antoni*) Negar egiten al dek, negar? Ez dek orain garaia. Leenago zian negar egiteko garaia. Naikoa negar egin-ara-zi diguk guri. Noizbait ik egin dezakan ere ez zegok gaizki.

*Polizia.*—(*Bizi-bizi*) Otoi, zaude ixillik. Utzi nazazu idazten. (*Pixka batean ixillik*)

*Erret.*—(*Agertuz*) Joana Mari, gaixoak Margorekin here ondora deitzen zaitu. Ajo-la aundiko zerbait aurrez aurre esan bear omen dizue.

*Joana M.*—Zer nai du?

*Erret.*—Ez dakit.

*Joana M.*—Ongi da. (*Sukaldeko atea idikiz, Margori otsegiten dio*) Zatoz, Margo. Aitak nai omen gaitu mintzatu. (*Biak irtezen dira*)

*Erret.*—Gertatua aitortuko die. Ez du kezka orrekin il nai. Barkazioa eskatuko die biei eta al baitenez here krimena erreparatu dezaten. (*Denak daude ixillik. Andik puxka batera negar-zotinka agertzen dira ama-ala-bak, eta tutik esan gabe irtetzen dira sukaldeko atetik*)

*Polizia.*—Paper au gaixoari firmatu arazi eta gure lana bukatua da. (*Guardiari*) Zatoz nerekin.

Erret.—*Ez dakotzia, orai, Antoni, esku horiek libratzen ahal?*

Poliza.—*Ba, egin ditakena da... (Hala eginik Poliza eta J. Xefa jalitzen dira)*

Erret.—(Eztiki) *Errazu, gaixo Antton, kontent ahal zira?*

Anton.—*Alabainan, jaun Erretora.*

Erret.—*Bethi sentimendu beretan zireu Margorentzat?*

Anton.—*Ni bethi... Hura hala bada enetzat.*

Erret.—*Ba, badakit hura ere hala delu zuretzat... Ez zaitu harek behin ere ukhatu... (Sukaldeko athea idekiz) Zato, Margo, hunadino, plazer baduzu... (Margo hurbiltzen zaio Antoni nigarrez)*

*Ha, zuek biak, ene haur maiteak,  
Oren hitsak pasa-berri ditutzue...  
Halere zuen amodioa ez da hautsi...  
Izaitekotz azkartu... Tinka-aitzue  
Esku horiek elgarri... Atxik-azue.  
Zuen amodio garbi... Agian, laster,  
Aldare aintzinean, sekulan hautsiko  
Ez den lokharriaz estekatuko ditugu  
Bi esku horiek...*

(Eskuak tinkatzen dituzte erdi nigarrez)

(O I H A L A)

*Erret.*—Eta esku oiek ezin dakizkieke askatu Antoni?

*Polizia.*—Bai, egin ditekena da. (*Ala egiñik, Polizia eta Guardia irtetzen dira*)

*Erret.*—(*Bigun*) Gaixoa! Pozik al zera orain?

*Anton.*—Bai, erretore jauna.

*Erret.*—Lengo maitasun berbera al dezu orain ere Margorentzat?

*Anton.*—Nik bai... Berak baldin badu nerretzat...

*Erret.*—Bai, badakit berak ere baduela zuretzat. Ez zaitu arek bein ere ukatu. (*Sukaldeko atea idikiz*) Zatoz, Margo, oneraiño, nai badezu. (*Margo urreratzen zaio Antoni negarrez*)

A, zuek biak, nere aur maiteak, ordu latzak pasa-berri dituzute... alere zuen amorioa ez da autsi... izatekoz indartu. Emaizkazute esku oiek elkarri. Gorde zazute zuen amorioa garbi. Agian laister aldare aurrean, sekulan autsiko ez dan lokarriaz lotuko ditugu bi esku oiek...

(*Eskuak alkarri ematen dizkate, erdi negarrez*).

O I A L A

## ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: SAGARDOAREN GRAZIYA ta beste bertso asko (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: GABON, AU OSTATUBAI, ANTON KAIKU.
3. *F. Apalategui, S.I.*: EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.
4. *Pepe Artola*: USTEZ LAGUN DETAN ta beste bertso asko.
5. *P.M. Urruzuno*: EUSKALERRITIK ZERURA ta beste bertso asko.
6. *Toribio Alzaga*: RAMUNTXO.
7. *Ramos Azkarate*: GALTZAUNDI ta beste bertso asko.
8. *Antero Apaolaza*: PATXIKO TXERREN.
9. *Bitoriano Iraola*: OROITZAK ta beste ipui asko.
10. *Bertsolariak*: ERREGE EGUNeko BERTSO SAYOA (1962).
11. *Piarres Larzabal*: BORDAXURI
12. *Bilintx*: BERTSO TA LAN GUZIAK.
13. *Mariano Izeta*: DIRUA GALGARRI.
14. *Piarres Larzabal*: IRU ZIREN.
15. *Bertsolariak*: EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.
16. *Alfonso M.º Zabala*: GABON GAU BAT ta beste ipui asko.

17. *Antonio M.<sup>o</sup> Labayen*: MALENTXO, ALARGUNI
- 18-19. *Antonio Zavala, S.I.*: TXIRRITA (Bizitza ta ta bat bateko bertsoak).
20. *Franzisko Goñi, S.I.*: LURDESKO GERTAE-RAK.
21. *Piarres Larzabal*: HERRIKO BOZAK edo NOR ALKATE.
22. *Bertsolariak*: BERTSOLARIEN TXAPELKETA (30-XII-1962).
23. AIZKOLARIAK ta beste ipui asko.
24. *Fermin Imaz*: BERTSO GUZIAK.
25. *A.P. Iturriaga*: JOLASAK.
26. *Alfonso M.<sup>o</sup> Zabala, A. Larraitz, Juan Mir*: PERIYAREN ZALAPARTAK.—Melitona'ren bi senarrak.—Mendibe'tarren larriyak.—Utzi bearkol —Gizon bikañak.
27. *Bertsolariak*: AZPEITIKO PREMIYOAREN BERTSOAK.
28. *Bizenta A. Moguel*: IPUI ONAK.
29. *Toribio Alzaga*: BURRUNTZIYA.—Bernaiño'ren larriyak.—Txibiribiri.—San Tomas'eko feriya.
30. *Graziano Anduaga*: EGUNSENTIKO TXORIA ta beste bertso asko.
31. *M. Soroa*: BARATZAN.
32. *Mikela Elicegui, Antonio Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAREN BIZITZA, bere alabak kontatua.
33. *Mikela Elicegui, Antonio Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAK JARRITAKO BERTSOAK.
34. *Piarres Larzabal*: SENPERE-N GERTATUA.





1027919

JB-909

